



Alokairuaren bidean

Gazteen emantzipaziorako bidea ez dago erraz. Alokairua alternatiba erreala al da? Hainbat gaztek alokairu duina eskatuko dute bihar kaleetan. Udalak babesezko alokairuko sei etxeren inskripzioa hasiko du egunotan. • 2-3

LEHIOZ ELORRIOAGA

300 lagunek Hitzez eta Ahotsez ekimenean parte hartuko dute zazpi orduz Plateruenean, maiatzaren 4an

Durango | Euskal literatura jendarteratzea helburu duen ekimenak 'Iurra' izango du ardatz. Gai horren inguruan, 300 parte-hartzailek eurek aukeratu edo sortutako testuak irakurriko dituzte. Gainera, antzerkilari, musikari zein dantzariak ere literaturaren harribitxiak taularatuko dituzte. Nobedade legez, bosgarren edizio honetan bazkaria antolatuko dute Plateruenean. Ondoren, 17:00etan ekingo diote irakurraldiari, gauerdia arte. • 14-15



Dravet sindromea dutenei lagunduko die padel torneoak

Padela | Durangoko Fair Play padel klubak torneo solidarioa antolatuko du maiatzean. Aurten, Dravet sindromea duten umeei laguntzen dien elkarte bati emango diote izen-emateagaz batutako dirua. Maiatzaren 18tik 25era ligaxkak jokatuko dituzte. Txapelketako finalak maiatzaren 27ko domekan izango dira. • 19



IURRETA

Lanbide Heziketa

www.iurretalhi.eus
idazkaritza@iurretalhi.eus
Tel.: 944 66 88 00

ZIKLOAK

GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze Lan Elektronikoa
- Produkzioaren Programazioa
- Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena

AURREMATRIKULA
Ekaina

MATRIKULA
Uztaila

Euskaraz ikasi eta lan egin!

ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta



LEHIOR ELORRIAGA



“Hemen, alokairua negozio bat da, eta etxea erostera bideratuta dago sistema”

Alokairuko etxea lortzeko esperientzia azaldu dute hiru gazteek; zailtasun asko eta erraztasun gutxi daudela diote

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Alokairuaren gaia pil-pilean dago Durangon. Baina, zer diote protagonistek? Libe Solagaistua Zabalak (1991) eta Amaia Aierdi Gaztelu-Iturrik (1991) elkarregaz eman zuten alokairurako pausoa, 2015ean. Bestalde, Maialen Galarza Garrasatxu (1994) da alokairuko etxe bila dabilen gazteetako bat.

Zelakoa izan zen alokairuko etxea topatzeko bidea, Libe eta Amaia?

Libe Solagaistua: 2015eko urtarri-lean hasi ginen etxe bila, lana lortu eta gero.

Amaia Aierdi: Interneten bila hasi ginen, baina karu zeuden, eta gero etxe agentzietara joan ginen.

L.S.: Bai. Hainbat etxe agentzietara joan ginen; orokorrean, ez ziguten oso harrera ona egin. 600 euroko

alokairuko etxe bat lortu genuen azkenean.

A.A.: Hasieran, 650 euro eskatzen zizkiguten, baina etxe zaharra zen, eta berogailu bakoa. 600era bajatzea lortu genuen. Gerora, berogailua ipini ziguten, horrela hitzartu zutelako. Urte bi egin ditugu bertan.

Alokairu hori eramangarri egiten zitzaizuen?

A.A.: Esfortzu bat da. Aurreztu gura

“

Ni orain 550 euro ordaintzen nabil, eta gauzak dauden moduan zortea dudala esan daiteke”

—

baduzu, nahiko mugatuta zaude.

Zuen esperientziatik, zelan ikusten duzue Durangon alokairua lortzea?

L.S.: Orokorrean, nik uste etxe zaharrak daudela alokagai, hoge urtean berritzeko euro bat ere inbertitu ez dutenak.

A.A.: Eta gero 600 euro eskatzen dituzte. Pertsona bat bakarrik joateko oso txarto dago, ezinezkoa da. 600 eurotik gorakoak ez genituen begiratu ere egin; etxe agentziara joan eta 550egatik ez zegoela ezer esaten ziguten. Hilean 800 edo 1.000 euro irabazten badituzu, ezin duzu bakarrik joan.

L.S.: Ni orain 550 euro ordaintzen nabil, eta gauzak dauden moduan zortea dudala esan daiteke.

Maialen, orain etxe bila zabailtza zu. Zer prezio ari zara ikusten?

Maialen Galarza: 650etik gorakoak eta 700 eurokoak ikusten dira. Horrela, zelan konpondu alokairua eta gastuak ordaintzeko? Aspalditik nabil etxetik joateko gogoz. Baina eduki dudana ez da iraunkorra izan: hiru hilabete, beste hiru, gero sei... eta soldata oso baxuak. Ez dizu segurtasunik ematen. Orain kontratu nahiko duin bat daukat, eta urtebeterako da. Beraz, etxe bat alokatu dezakedala sentitzen dut. Bakarrik joateko asmoa neukan, baina prezioak ikusten hasi eta... Ez nekien etxe agentzietan fidantza eta lehen hilea aurreratu behar zirenik. Gainera, urtebete egon behar duzu gutxienez, bestela

fidantza galtzen duzu. Inguruko jendea ere nire egoera berean ikusten dut.

Alokairua gazteak emantzipatu eta gizartea garatzeko tresna bat dela esan ohi da. Europa iparraldeko herrialdeetan gazterik irteten dira gurasoen etxetik. Hemen erreala al da hori?

L.S.: Kontua da herrialde horietan alokairua ez dela izaten soldataren %50ekoa, hemen lez. Sistema ez da berdina. Hemen, alokairua negozioa da, eta sistema etxea erostera bideratuta dago. Alokairua dirua galtzea dela entzuten dugu.

M.G.: Gazteentzat bideratuta dagoen? Bada, lan finkoa dutenentzat akaso, baina ikasketak amaitzen dituzu eta...

A.A.: Filosofia kontua ere bada. Bartzelonan ikasten egon nintzenez, ikasle askoren familiak alokairuan bizi ziren.

Diru-laguntza batzuk ematen dituzte udalek, eta Eusko Jaurlaritzak ere hainbat iragarri ditu datozen urteetarako.

L.S.: Jaurlaritzaren laguntzak ba-

“

Bestalde, gazteak kalera irtetea beharrezkoa da, inork ez digu-eta ezer oparituko”

—

rregarriak dira. Laguntza jasotzeko, 12.000 euro baino gutxiago irabazi behar dituzu urtean; baina, hori baino gutxiago irabazten duen pertsonak ezin du alokairurako jauzia egin.

Durangoko Udalak gazte alokairurako etxe batzuk eskainiko ditu. Apuntatzeko asmorik baduzu, Maialen?

M.G.: Bai. Hori bai, Durangorako etxe gutxiegi direla uste dut. Bestalde, zalantza dut proiektua gestio-natzeko moduagaz: zer baldintza egongo den, zelan txandakatuko den, zelan funtzionatuko duen ikusi beharko da. Gainera, txandakatzean edo lanik barik geratuz gero, berriro salduta egongo gara. Bestalde, gazteak kalera irtetea beharrezkoa da, inork ez digu-eta ezer oparituko.

Eremu pribatuan, asko dira ez direnak alokatzera animatzen.

A.A.: Etxe piloa dago hutsik. Jabe batzuek, baina, ez dute gogorik izan alokairuan ipintzeko, eta beste batzuek prezio itzelak jarri dituzte. Ez al dago hori kontrolatzeko neurririk? Udaletik zerbait egin daiteke agian.

L.S.: Bai. Araututa egon beharko litzateke, baina ez merkatuaren arabera.

M.G.: Jendea motibatuzko lan gehiago egin behar dela uste dut; gizarte aldaketa bat behar da. Etxe jabeek ere erraztasunak eta segurtasuna eman behar zaizkie, gazteei bezala.



Etxebizitza arloaren inguruko azterketa egin du Gaindegiak. Esnaola da behategiko koordinatzailea.

"30 urte bueltan dago emantzipazio adina; izan ere, erosten zein alokatzen jarrita, dirutza behar da"

Durango 700 eurotan dago batez besteko alokairua, Gaindegiaren azterketaren arabera

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Gaindegiak, Euskal Herriko gizarte eta ekonomia garapenerako behategiak, etxebizitzaren inguruko ikerketa egin du. Imanol Esnaola (Lezo, 1971) da koordinatzailea. Hiriburuez aparte, prezio altuenen sailkapeneko podiumean dago Durango.

Alokairuaren prezioa gora etorri da azken urteetan. Zergatik?

Alokairuaren zama ekonomiko etxebizitza librea erosteak dakarrena baino gehiago hazi da. Etxebizitza merkatuko salgaia den aldetik, eskaerari lotuta dator. Eskaerak gora egitean gora egiten du prezioak. Beraz, hainbat fenomeno batera gertatzen ari direla gogoan hartu behar dugu. Bate-

"Salmentaren prezioa diru sarreren %54,9 izateraino heldu da, eta alokairua, %66,9 izateraino"

tik, metropolizazioa. Bestetik, arrisku finantzarioen eraginez maileguak eskuratzea zailagoa gertatzen denez, alokatzea da etxebizitza eskuratzeko biderik errazena. Aintzat hartzekoa da egoera ekonomiko ahulena bizi duen jendeak jotzen duela alo-

kairura gure artean (gazteak, atzerritik etorritakoak, bikote harremana eten dutenak...).

Alokatzea erostea baino merkeagoa dela uste izan da.

Norberak egin behar dagozkion diru kontuak. Euskadiko Gazteria Kontseiluaren arabera, salmentaren prezioa gazte baten batez besteko diru sarreren %54,9 izateraino heldu da, eta alokairua, %66,9 izateraino. Euskal Herrian etxebizitzaren salneurria soldatepeko gazteen ahalmen ekonomikotik oso urrun dago.

Durango 700 euroren bueltan dago alokairua, eta salmentarako ere altuak dira prezioak.

2008. urtean goia jo zuen salmentaren prezioak. Durango igoera oso nabarmena izan zen eta metro karratua 3.512 eurotan saltzera heldu zen batez beste, ia Bilboren pare (3.741 euro) eta Bizkaiko batez bestekoaren oso gainetik. Gaur egun 1.963 eurotan dago eta Bilbo, 2.326 eurotan. Beraz, Durango gehiago merkatu da etxebizitza librearen prezioa. Edonola ere, alokairuak 700 eurotik gora egonda, aukera biak oso gaitzak dira gazteen errenta mailarentzat. Durangoko prezioen egoerak antzekotasun handiak ditu, esaterako, Lapurdi barnealdean bizi duten egoeragaz. Kostaldean prezioak garesti, eta barnealdean prezioa gora.

Zein adinegaz emantzipatzen dira gazteak Euskal Herrian?

Ohitura moduan hartu ohi dugu arazo sozioekonomikoa dena. Hego Euskal Herrian 30 urte inguruan dago emantzipazio adina; izan ere, erosten zein alokatzen jarrita, dirutza behar da. Hau da, gazterik gehien bizitza plana eta epeak Ipar Euskal Herrian baino berantagoak dira. Katastrofe hutsa da gure herriarentzat. Gazteen emantzipazioak lehen mailako helburu nazionala izan behar luke.

"Durango igoera oso nabarmena izan zen eta metro karratua 3.512 eurotan saltzera heldu zen, ia Bilboren pare"

Beraz, instituzioek gazteen alokairua sustatu beharko lukete?

Laguntza programa jartzera doala esan berri du Eusko Jaurlaritzak, bada zerbait. Edonola ere, interesgarria litzateke adinekoen presentzia handia den auzoetan gazteen alokairua sustatzea, oreka demografiko egokiak bilatzeko; edo udalerritik txiki kasuan, herrian bertan ezartzea, bertako demografia sendotzeko.

Udalak gazte alokairuko 6 etxe eskainiko ditu orain, eta guztira, 16 etorkizunean

Martitzenean eman zioten behin-betiko onarpenera ordenantzari, eta egunotan zabalduko da inskripzioa



San Fausto auzoan egongo dira gazteentzako alokairuko etxeak.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Proiektu esanguratsua jarriko du udalak martxan egunotan. Faustegoienako babeseko sei etxe gazteen alokairua sustatzeko eskainiko ditu; martitzeneko osoko bilkuran ordenantzari behin-betiko onarpenera eman eta gero, aldezkaritza ofizialean argitaratu eta inskripzioa hasiko da Durango Eraikitzenen bidez. Guztira, Faustegoienan eraikitzen dabilten 118 etxeetatik 16 izango dira gazteen alokairurako etorkizunean.

18 eta 30 urte arteko gazteek eskatu ahalko dute etxea, eta txan-

dakako sistema izango da: gutxienez urtebete egon beharko dira eta gehienez, hiru. 150 eta 300 euro arteko alokairua ordainduko dute etxeengatik, duten diru sarreraren eta etxeko partaide kopuruaren arabera, eta etxeko kontsumo gastuak zein komunitatekoak ere gazteen kontura joango dira. Gazte batek ezingo du 16.000 euroko errenta pasatu urtean; bikotea izanda, 21.000 euroan egongo da muga; hirukotea bada, 33.000 euro da sabaia. Gazteek aseguru bat egin beharko dute, eta fidantza bat ordaindu ere bai.

Manifestaziora deitu du Zabalduko Ditugu taldeak

Bihar goizean jardunaldi bat egingo dute Ezkurdin; manifestazioa 18:00etan hasiko da, Andra Maritik

DURANGO • M.O.

Gazteentzako alokairu duin baten aldeko aldarria zabalitzen ari da Zabalduko Ditugu taldea. Mobilizazioak egin dituzte, etxe hutsen identifikazioa... Udalean mozio bat ere aurkeztu zuten iaz, onartua izan zena. Mani-

festaziora deitu dute biharko, 18:00etan, Andra Maritik. Goizean, jardunaldi bat egingo dute, 11:30ean, eta ostean, bazkaria. 17:00etarako, hausnarketa iragarri dute. Euren ustez, udalaren 6 etxeak "ez dira nahiko" arazoari aurre egiteko.



Zabalduko Ditugu taldeak iraganeko egindako manifestazio baten irudia.

Trenbideko planaren maketa ez dute ekarriko, baina informatzeko eskatu dio udalak jaurlaritzari

2006an landutako plan bereziari otsailean eman zion onarpena udalak; eremu horretako zehaztasunak ez daude argi



Estazio zaharra bota zutenetik, ingurua urbanizatzeko lanetan dabilta beharginak.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

2006an landu zuten Durangon trenbideko lurrak eraldatzeko plan berezia, eta hainbat urteko atzerapen eta gorabeheren ostean, aurtengo otsailean eman dio

udalak behin-betiko onarpena. *Durango Operazioa* lez ezagutzen hasierako asmo hartatik, Euskotren egoitza zentrala izateko eraikina ez da egingo, baina badirudi gainerako guztiak bere

Bost etxe dorre eta babeseko beste bloke bat eraikitzea aurreikusten da -guztira 554 etxe-

horretan segitzen duela. 55.000 metro karratuko gunera horretan, martxan dagoen estazio berriaz aparte, bost etxe dorre eta babeseko beste bloke bat eraikitzea aurreikusten da -guztira 554 etxe-; baita aisialdirako eremu bat eta izaera erlijiosorako espazio bat ere. Kontua da, urteotan izandako gorabehera eta iritzien ostean, ez dagoela argi zer proiektu garatu gura duten bertan udalak eta Eusko Jaurlaritzak -berez, jaurlaritzaren lurra dira-.

Egoera hori ikusita, planaren maketa Durangora ekartzea proposatu du osoko bilkuran EH Bilkurak, herritarrek ezagutu dezaten. Herriaren Eskubideak begi onez ikusten du proposamen hori, eta gainera, proiektuaz kontsulta antolatzea eskatu du. Baina EAJ, PSE-EE eta PPren ustez maketa hori denboraz iraungita dago, eta ez dute mozioa babestu. Bai, oster, gobernuko alderdi biek aurkeztutako alternatibo bat, Eusko Jaurlaritzari herritarrek informatu ditzala eskatzen diona.

Martin Barreña Elizegi hil da, bonbardaketaren lekuko izan zena

DURANGO • M.O.

Martin Barreña Elizegi hil zen martitzenean, Durango-ko bonbardaketako lekukoa eta frankismoko errepresaliatua izan zena. Barreñak 9 urte zituen 1937ko martxoaren 31ko bonbardaketan gertatu zenean. "Beti Anboto mendira begira egoten ginen, ea hegazkinik bazetorren beldurrez", zioen iaz bere alaba Maite eta biloba Itsasogaz batera ANBOTOrri eskainitako elkarriketan.



MARTIN BARREÑA

Martin Barreñak eta familia errepresio handia jasan zuten gerra zibilean eta osteko diktaduran. Esaterako, anaia bat eta osaba bi desagertu egin ziren gerra sasoiaren. Bera preso egon zen denboraldi batez, langile mugimenduak egindako greba baten harira.

DURANGO • M. ONAINDIA

Joan zen zapatuaz geroztik inauguratuta dago Kurutzia Ikastolako jolastoki berria. Ikasle, guraso eta herritar ugari batu

Kurutziagako jolastokia herrira zabalik egongo da eskolaz kanpoko ordutegian

Zapatuan hainbat ikasle, guraso, ordezkari eta herritar batu ziren inauguraziora

Astegunetan arratsaldean eta zapatuetan goizean erabili ahalko dute herritarrek

ziren ekitaldira, baita Aitziber Irigoras alkatea eta Izaskun Landaida Emakundeko zuzendaria ere. Udalak egindako lur lagapenari esker, gunea handitu egin da metrotan, eta, trukean, eskolaz kanpoko ordutegian herri osora

zabalik egongo da hainbat unetan. Hain zuzen ere, astegunetan arratsaldean eta zapatuetan goizean erabili ahalko dute herritarrek. Horrela, Durangok parke berri bat edukiko du.

Lau urteko prozesu baten ostean zabalduta dute jolasgunea. Ikasleei galdetuta eraldatu dute; mutilen protagonismoa bajatu eta erabileran parekidea izan gura du, baita naturagaz hartu-emanean ere.



Eguraldi ona lagun zutela inauguratu zuten gunea. Lehiur Elorriaga

DAZ: "Gure bizi-kalitatea arriskuan jartzen dute zaratek, batez ere gauekoek"

DURANGO • M.O.

Alde Zaharreko elkarteak zaraten inguruko idatzi bat erregristatu du udalean. Idatzi hori 2008an ere aurkeztu zuten. "Zoritxarrez, 10 urteren ostean, testu bera aurkeztu dugu udalean. Gure bizi-kalitatea arriskuan jartzen dute zaratek, batez ere gauekoek", diote. Euren ustez, arautegiak ez dira errespetatzen, eta sarri pasatu dira dezibelio mailak. Udala zaratek murrizteko ekintza plan bat osatzen dabil.

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko apirilaren 27a
16. urtea - 718. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Zibersegurtasunari buruzko lehen ziklo ondokoa, Maristak ikastetxean

DURANGO • M.O.

Zibersegurtasunari buruzko Euskal Herriko lehen ziklo ondokoa sortu du Maristak ikastetxeak, eta irailean ipiniko dute martxan. Teoriaz

Ikasketa buruak azaldu du enprekin berba egin ostean sortu dutela eskaintza

gainera, praktikak ere egingo dituzte bi hilabetez. Xabier Ametzazurra ikasketa buruak azaldu du enprekin —tartean atzerrian egoitzak dituztenak ere bai— berba egin ostean sortu dutela eskaintza. "Gero, ikasleak kontratatzeke konpromisoa ere badute; beraz, lan munduan murgiltzeko tasa handia edukiko du". Datuen segurtasuna hobetzeko beharra ikusi dute enpresek, eta lege berri batek horretara eramango ditu gainera.

"Emakume askok agertu dute interesa proiektuagatik eta, beraz, badago beharrezana"

Maiatzean ekingo dio ibilbideari familien elkarguneak, momentuz dozena bat familiari zerbitzua emanez; dibortzio gatazkatsuak izan dituzten bikoteek —kasu askotan indarkeria matxista dago tartean— umeak bisitatu ahalko dituzte

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Dozena bat bikotegaz ekingo dio bideari Durangoko familien elkarguneak. Joan zen barikuan egin zuten inaugurazioa Laubideta eta Pinondo arteko loturan dagoen lokalean. Aitziber Irigoras alkatea eta Pilar Rios alkateordeaz gainera, Maria Jesus San Jose lan eta justizia sailburuak ere hartu zuen parte. Udaleko alderdi guztieta-ko ordezkariak eta Aitor Lopez

laguntzaz eta, beharrezko bada, zaintzapean. Kasu asko indarkeria matxistagaz lotutakoak dira, eta, horregatik, emakumeekiko parekidetasunaren aldeko lanaren baitan txertatu du proiektua Rio-

sek. "Emakume askok agertu dute interesa proiektuagatik eta, beraz, badago beharrezana".

Eguazten eta bariku arratsaldetan egongo da zabalik, eta zapatu eta domeka goizetan ere bai.

Irigorasek eskerrak eman dizkie proiektuari bultzada eman dioten guztiei. Orain arte bikote horiek Bilbora joan behar zuten, "euren bizitza apur bat erraztu" egingo dela nabarmendu du alkateak.

Eguazten eta bariku arratsaldetan egongo da zabalik, eta zapatu eta domeka goizetan ere bai

Amankomunazgoko presidentea ere egon ziren ekitaldian. Dibortzio gatazkatsuak izan dituzten bikoteei eskainiko diete zerbitzua; umeak bisitatzeko aukera edukiko dute lokalean, teknikarien



Laubideta kaleak Pinondorantza ematen duen izkinan dago lokala.

Alokairu sozialaren gaia udalbatzara eraman dute Barrurako kideek

Zaldibarren errolatuta dauden 18-32 urteko gazteen %40k baino gehiagok bat egin dute gazteentzako alokairu sozial bat sortzearen alde Barrurak eginiko proposamenagaz

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Urte bi baino gehiagoko lan-entzaren ostean, etxebizitza hutsen gaia udalbatzara eraman du Barrura ekimenak. Gazteentzako Alokairu Sozialerako Programarentzat babes politikoa lortzea da udalbatzara aurkeztearen helburua. Aurretik, zaldibartarren atxikimendua jaso du etxebizitza

Proposamenak gazteen emantzipazioa erraztuko dituen aukerei buruzko eztabaida piztu gura du

hutsen gaia konpondu gura duen proposamenak; 18-32 urteko ehun gazteren sinadura lortu du (adin

tarte horretako zaldibartarren %40 baino gehiago) proposamenak, baita herriko hamar eragile sozialen atxikimendu publikoa ere. "Gure proposamena ez da itxia. Eztabaida piztu eta Zaldibar-ko gazteak emantzipatu ahal izateko aterabiderik egokiena eraikitzeke abiapuntua da", azaldu du Pello Zabarte Barrurako kideak.



Zapatuan elkarretaratzea egin zuen Barrurak.



Izurtzako gaztelekuaren argazkia.

Erabilera anitzeko gune bihurtuko dute gaztelekua

Joan zen astean egindako herri batzarrean, gune hori berrantolatzeke ideiak eta proposamenak jaso zituzten

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Gaia herritarrekin eztabaidatu ostean, erabaki bat hartu du udalak: gaztelekua erabilera anitzeko gune bihurtuko dute. Gaur egun espazio horrek ez du erabilera handirik, eta herritarrei zabaltzea da helburua, euren beharrezanetarako.

Joan zen astean, herri batzarra egin zuten gaiari buruz berba egiteko, eta bertaratutakoen iritzia jaso zituzten. Urtea amaitu aurretik proiektua prest izan gura dute, lanak 2019an egiteko. Espazio berria martxan jartzean, erabilera orduak internet bidez kudeatzea da asmoa.

Intxortan hildakoak "ahantzuran ez galtzeko" deia egin du Idoia Buruagak

ELORRIO • M.O./M.Z.

Intxortako erresistentziaren 81. urtemugan, 7 hileko borroka hartan hildako 231 gudari eta milizianoak gogoan izan zituzten joan zen domekan Elgetan; tartean, 44 elorriar. Idoia Buruaga Elorrioko alkateak ere parte hartu zuen ekitaldian.

Buruagaren esanetan, etorkizunera begiratzeko ezinbestekoa da iragana ezagutzea. "Berriro gertatu ez dadin, gure

Etorkizunera begiratzeko, iragana ezagutzea ezinbestekoa dela adierazi du Buruagak

seme-alabek ezagutu dezatela euren aitita-amamen historia". Borrokan hildakoez aparte, frontean jausi eta gero herrietan bortxatu zituzten emakumeak ere gogoan izan ditu Buruagak.

Ekainerako amaituko dituzte hilerrian leku gehiago egokitzeko hasitako lanak

GARAI • AITZIBER BASAURI

Ekainerako amaituko dituzte hilerriko berriztatze lanak. Lanoi esker, hilobi gehiagorako lekua egongo da. Otsailean hasi zituzten lanak eta, dagoeneko, kaperaren teilatua berriztu dute. Baina, azken hileotako euriaren eraginez, gainontzeko lanak geldia daude. Hamazortzi hobi aurrefabrikatu jarriko dituzte hilerrian, eta errautsak gordetzeko kolunbarioak kaperaren alboan. Udalak 66.500 euro inbertituko ditu.

Garaiko Udalak 66.500 euro inbertituko ditu hilerriaren berriztatze lanak gauzatzeko

Hobi aurrefabrikatuak jartzeko, bertan lurperatuta egon diren hezurak atera eta hobi komunean sartu dituzte. Hilariak ere gordeko dituzte, Gonzal Sarrigoitia alkateak azalduenez.

Iurretako Udalak 922.500 euro bideratuko ditu herria eraldatuko duen N-634 errepidearen berrantolaketa

Errotonda bi eta semaforodun bost zebra-bide goratu jarriko dituzte 700 metroko espazioan, espaloi eta bidegorriekin. Iurretako Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetzaz hitzarmena sinatuko dute proiektua martxan jartzeko

IURRETA • AITZIBER BASAURI

N-634 errepide nagusiaren hiri antolamendurako lanei aurre egiteko udalak eta Bizkaiko Aldundiak sinatuko duten lankidetzaz hitzarmena onartu dute aste honetako udalbatzan. Hitzarmenaren arabera, Iurretak 922.500 euro jarriko ditu obrak gauzatzeko. Proiektuak 1,5 milioi euroko inbertsioa eskatuko du.

EAJk eta PSE-EEK hitzarmenaren garrantzia nabarmendu eta alde bozkatu dute. Aldiz, EH Bilduk kontra bozkatu du, "ekarpenak egiteko aukerarik ez delako bermatu". Liher Aiertzaguenaren berbetan, "urteetan interes eta kezka handia sortu duen gaia da N-634a,

Herria goitik behera "eraldatuko" duen proiektua dela azpimarratu du alkateak

eta herritarrei ez zaie aukerarik eman ekarpenak egiteko, ez zaie galdetu".

PSE-EEko M^a Angeles Muñozek gogoratu du hitzarmen ekonomikoa dela, eta aurrerago egongo dela ekarpenak egiteko aukera. "Herria-



N-634 errepidearen berrantolaketa lanei 1,5 milioi euroko inbertsioa eskatuko dute guztira.

rentzat proiekturik garrantzitsuenetako bat da, eta beharrezkoa da zerbait egitea".

Iñaki Totorikaguena alkateak ere herria goitik behera "eraldatuko" duen proiektua dela azpimarratu du, eta informazioa eman eta gardentasunez jokatu dela. "Asko kostatu da hona heltzea. Batzuetan, trena behin baino ez da igaro-

tzen. Hartu ezean, urte pilo itxaron beharko da. Proiektua lantzen

Totorikaguena: "Proiektua lantzen ari dira eta dagokionean bermatuko dugu parte-hartzea"

ari dira eta dagokionean bermatuko dugu parte-hartzea". Errotonda bi eta semaforodun bost zebra-bide goratu jarriko dira 700 metroan, espaloi eta bidegorriekin. Uda aurretik espero dute hitzarmena sinatzea. "Ordurako proiektua prest egotea gura genuke, lanak 2019ko lehenengo hiruhilekoan hasteko", dio alkateak.

Eraikin hexagonalak erabiltzeko baimena eman dio Jaurlaritzak udalari

Sanmigeletarako erabiltzeko moduan egongo den eraikina IUGazte programa garatzeko erabiliko dute



Eraikin hexagonalak Maiztegi ikastetxearen ondoan dago.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak 2017ko uztailean eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eraikin hexagonalak, herriko kultur eskaerari eta gazteen aisialdirako beharrezko erantzuna emateko. Jaurlaritzak erantzun egin dio, eta udalak badu baimena gaur egun erabilera akademikorik ematen ez duen eraikina erabiltzeko.

IUGazte programa garatzeko erabiliko dute, eta gazteentzako "leku erreferente" bat bihurtzea gura dute. Sanmigeletarako erabiltzeko moduan izango dela uste du alkateak. "Itxitura jarriko dugu, eskola eremutik bereizteko, eta dena garbituko dugu. Apurka-apurka joango gara ikusten zeintzuk premia dauden", esan du.

Eraikina gazteentzako "leku erreferente" bat bihurtzea gura dute udal arduradunek

Apirileko Feria antolatuko dute Oromiñon, San Marko jaien barruan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Apirileko Feriak girotuta, Mozorro Eguna ospatuko dute, bihar, Oromiñoko San Marko jaien barruan. Feriak emango dio hasiera jaiegunari, 12:00etan. Arratsaldean, Maiztegi herri eskolako umeen erakustaldia eta umeentzako jolasak izango dira eta, iluntzean, tortilla txapelketa hasiko dute. Luhartz taldeak berotuko du gaugiroa. Antolatzaileek azaldu dutenez, sopresaren bat ere izango da gauerdian.

Domekan agurtuko dituzte jaiak, errifaren zozketa egin eta Donien Atxa bota ostean. Aurretik, 12:00etan, Mikel Deuna dantza taldekoek saioa eskainiko dute eta, 18:00etan, asto probak hasiko dira.

Gosari Gozoak, euskal sortzaileen aitzakian euskaraz aritzeko uneak eta guneak eskaintzen dituen ekimena

Emanaldiak ezohiko orduetan izaten dira, goizean goiz; hurrengo hitzordua Tomasa tabernan izango da, Inun musikariagaz

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Herriko tabernariak martxan jarri duten Gosari Gozoak ekimenak helburu nagusi bi ditu: sortzaile euskaldunei euren lanak zuzenean aurkezteko plaza berriak eskaintzea eta, giro horren inguruan, euskarazko hartu-emanak sustatzeko gune berriak sortzea. Hurrengo emanaldia datorren egunean izango da, maiatzak 3. Inun musikariak emanaldia eskainiko du Tomasa tabernan, 09:30ean.

Sortzaileei plaza bat eskaintzen die ekimenak, eta herritarrei euskaraz aritzeko espazio berri bat

Goiza ezohiko ordua da horrelako ekimenetarako, baina, hain zuzen, horregatik aukeratu dute ordu hori. "Umeak ikastetxeetan utzi ostean tabernetan batzen ziren gurasoei horrelako ekital-



Hurrengo hitzordua Tomasa tabernan izango da, Inun musikariagaz.

diekin gozatzeko aukera eskaini gura genien. Eta, horregaz batera, euskarazko emanaldien bueltan, euskarazko hartu-emanak sustatzeko gune berri bat sortu gura genuen. Euskaraz egiteko espazio berri bat eskaintzea zen gure helburua", azaldu du Urtza Tabernako Julen Bazek. Datorren eguneko

Etorkizunean, musikari ez ezik, bestelako sorkuntza formatuei ere atea zabaltzeko asmoa dute

Gosari Gozoak ekimenaren barruan eskaintzen duten hirugarren emanaldia izango da, eta hilean behin antolatzen jarraitzeko asmoa dutela azaldu dute. Aurreko emanaldi bietan Zeinke taldeko Paulo Ruiz eta Zakari Valdes izan ziren musikari gonbidatuak. Etorkizunean, musikari ez ezik, bestelako sorkuntza formatuei ere atea zabaltzeko asmoa dute.

Musika eskola berria egiteko lanak hasi dituzte, eta 18 hilabete iraungo dute

ZORNOTZA • J.D.

Astelehen honetan hasi dituzte Zornotzan musika eskola berria egiteko lanak. Lehenengo, ambulatorio zaharreko eraikina eraitsi eta zorua garbituko dute. Ondoren, 1.000 metro karratu inguruko orube horretan hasiko dira musika eskola eraikitzen. Lanak urte eta erdi barru amaituko dituzte, udal arduradunek ohar batean zehaztu dutenez. Proiektuaren aurrekontu osoa 2.570.000 eurokoa

Anbulatorio zaharra eraitsi ostean sortuko den orubean eraikiko dute musika eskola

da. Eraikin berriak lau solairu erabilgarri izango ditu, Javier de las Heras Solé arkitekto katalanaren diseinuari jarraituz. Askotariko musika instrumentuek euren gela propioak izango dituzte.

Jesuitak
JESUITAK
Durango

**ATE
IREKIAK**
Apirilaren 26an

BATXILERGOA
2018-2019

Matrikulazio epea:
Maiatzaren 2tik 14ra

www.durangojesuitak.org
Tfnoa.: 946 810 050

Betearteri eman diezaioketen baimena atzeratzeko arrazoiak batu ditu udalak

MALLABIA • J.D.

Gipuzkoako hondakinak hartzeko, Betearteri zaborteziak Eusko Jaurlaritzaren baimena behar du, hondakin mota hori hartzea ahalbidetuko liokeena. Mallabiko Udala baimen hori atzeratzen saiatuko da. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailera txosten bat bidali dute. Txosten horretan argudiatzen dute zaborteziak funtsezko moldaketak egin behar lituzkeela. Jaurlaritzak txosteneko argudioekin bat egiten badu baimena ematea luzatu egingo litzakete, tramite gehiago eskatuko lituzkeela. Aldiz, erabakitzen badu zaborteziak ez duela funtsezko moldaketarik egin behar, zaborteziak arinago lortu ahalko luke baimena.

Kirolgune berria zelan hornitu pentsatuko dute herri batzarrean

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Udalak kirolgune bat egingo du pilotalekuko lehen solairuko pasilloan. Ildo horretatik, behin-behineko kirolgunearen maketa egin dute, eta maiatzaren 4an herritarren aurrean aurkeztuko dute, 18:30ean, udalbatzar aretoan. Bertan, herritarrek proposamenaren inguruan dituzten iritziak jasoko dituzte eta kirolgunea zelan eta zegaz hornitu galdetuko diete.

Barikuetan ere zabalduko dute estazio zaharreko liburutegia, goizez

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen barikutik ordutegi berria du Atxondoko liburutegiak. Estazio zaharrean dago liburutegia, Gaztetxearen gainean, eta orain arte, Atxondoko Udalak astelehenetik eguenera baino ez zuen eskaintzen liburutegi zerbitzua, arratsalde, 16:30etik 20:00etara. Orain, oster, herritarrek bariku goizetan ere joan ahal izango dira, 10:30etik 14:00etara.

Muntsaratz sarrerako arazoa konpontzeko bidean dagoela dio udalak

Aldundiagaz akordioa sinatu du udalak, eta Elorrio-Durango errepidearen zati horretako titulartasuna utziko dio bertan obrak egin ahal izateko; biribilgunea eraiki gura dute



Auzotarrek 564 sinadura bildu zituzten arazoa konpontzea eskatzeko.

ABADIÑO • M.O./A.M.

Hamalau hilabeteko negoziazioen ostean, Abadiñoko Udalak eta Foru Aldundiak hitzarmena adostu dute Elorrio-Durango errepideko Abadiñoko zatia uzteko; horrek Muntsaratzko sarrerako arazoa konpontzea ahalbidetuko luke, Jose Luis Navaroren berbetan. Besteak beste, biribilgune bat egingo dute bertan. Udalak 1.200.000 euro bideratuko ditu horretarako; Aldundiak hiru urtean itzuliko dio

Udalak 1.200.000 euro aurreratuko ditu obrak egiteko; biribilgunea egingo da

Lagapena gauzatu arte itxaroten egon barik, lanak aurreratzea eskatu du EH Bilduk

diru hori udalari. EH Bilduk prozesua ahalik eta bizkorren egiteko konpromisoa eskatu dio udalari. Apirilko udalbatzan, bestalde, mozioa aurkeztu zuen koalizioak, Muntsaratzko 564 bizilagunen sinaduragaz batera. Udal gobernuak aurka bozkatu zuen eta mozioa ez zen onartu.

Txopoa altxatuta abiatuko dituzte Matienako San Prudentzio jaiak

Segurtasun neurriak hartu dituzte gaur, 20:00etan, Donien Atxa altxatzeko. Ondoren, Abadiñoko Merkatarien Elkarteko (AME) kideek txupinazoa jaurtiko dute txosnagunean

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Ikusmin handia sortu du Donien Atxa altxatzeak Matienan, iaz ikusleen artera jausi eta gero. Segurtasun neurriak hartuta, dena prest dute, gaur, 20:00etan, herriko jaiak martxan jartzeko. Ondoren, urteko lagun ospetsua sarituko dute. Txosnagunean, oster, jaiak txupinazoagaz abiatuko dituzte

Abadiñoko Merkatarien Elkarteko kideekin.

Olotetik Abadiñora

Jaietako egitarauko nobedadeetako bat Oloteko (Herrialde Katalanak) Aoapix elkarteak egiten duen marransen (ahariak) entzierroa izango da, domekan. La Garrotxako produktuen dastaketa ere

Oloteko Aoapix elkarteak egiten duen marransen (ahariak) entzierroa izango da domekan

egingo dute arratsaldean. Eta, gauean, Els Diablos de la Gradera taldearen Correfocen bengala eta suzuriaren txanda izango da.



Iluntze dantza taldeko kideak, iaz, jaien hasierako ekitaldian.

Bittor Garaigordobil Urkiolako abade eta misiolaria hil da, 102 urte gaz

ABADIÑO • A.M.

Bittor Garaigordobil Abade Beneragarrien Bilboko egoitzan hil zen, joan den martitzenean. Eguenean bere aldeko hileta elizkizuna egin zuten, Urkiolan, eta bertako abade etxean hil kapera ezarri zuten. Iazko urrira arte, Urkiolako Santutegiko elkartearen bizi izan zen Garaigordobil. 1948. urtean Euskal Herriko Ekuadorrera joan ziren lehengo zortzi misiolarien taldeko bat izan zen, eta 34 urte

Eguenean hileta elizkizuna egin zuten, eta abade etxean hil kapera ezarri zuten

egin zituen misiolari lanetan. Egueneko elizkizunean Mario Izeta Bilboko gotzaina egon zen, beste hainbat gotzain eta abadegaz batera. Santutegiko kanposantuan hilobiratu zuten Garaigordobil.



1967an sortu zen Fray Juan de Zumarraga institutua. Ikasturte honetan, beraz, 50. Urteurrena ospatzen ari gara. Ospakizuna gogoratzeko, zenbait ekimen egin ditugu, eta, INSTITUTUA JAKINA! Aspaldiko lema berretsi dugu. Kurtso osoan zehar gura genuke efemeride hori gogoan izan, eta, horrela, eskertu Durangaldean kalitatezko hezkuntza publiko, euskaldun, kritiko, sortzaile, parte-hartzaile eta oso bat sortzen jardun duzuen guraso, ikasle, irakasle eta bestelako langile askoren lana.



Abiapuntu ezberdinetatik, helmugara jotzen dugu.

modalitate (Zientziak, Giza eta Gizarte Zientziak, Artistikoa eta Musikala), Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleei arreta emateko gelak (Gela Egonkorrak eta Zereginak Ikasteko Gelak) eta Kirol Jardueren arloko Erdi Mailako eta Goi Mailako Heziketa Zikloak. Orientazio departamentuak berebiziko garrantzia du gure

ikastetxean, bi orientatzaile ditugu-eta; bata derrigorrezko hezkuntza etaparako (DBH eta GE), eta bestea derrigorrezkoaren ondorengorako (Batxilergoa, ZIG eta Zikloak). Hauek, tutore eta irakasle taldearekin batera, ikaslearen jarraipen zehatza egin, eta honen ibilbidea bideratzeko laguntza ematen dute.



Urteak pasa eta gero...



Denok elkartzen gara.

HEZKUNTZA ESKAINTZA

Durangoko institutua heziketa osoko ikastetxe publikoa da, euskalduna eta eleaniztuna. Gure helburu nagusia ikasleengan euren garapen pertsonalerako eta gizarteratzeko beharrezko kompetentzien lorpena sustatzea da. Fray Juan de Zumarraga-Durangoko BHI ikastetxea Durangaldeko bigarren hezkuntzan

ereduzko zentroa da, bai duen ikasle kopuruagatik, eta baita 50 urteko esperientzia duelako ere.

Gure hezkuntza eskaintza zabala eta askotarikoa da: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (Landako eta Zabalarra Lehen Hezkuntzako eskoletako ikasleak biltzen ditugularik), Batxilergoko lau

Era berean, asko dira abian ditugun proiektuak: DBHko etapan aniztasunaren trataerari lotutakoak (HBSP, HIPI, Bidelaguna, CA taldeak...), Sare Hezkuntza Gelan (IKT baliabideen inplementazioa gelan), HNP (euskara eta euskal kultura sustatzen ditugu),

Eleaniztasuna (hainbat jakintzagai ingelesez edo frantsesez egiteko aukera eskainiz), Hezikidetzaren Elkarbizitza, EA21... ACEX proiektuaren barruan Liburutegiko zerbitzua eskaintzen dugu eskola ordutegi barruan eta baita ordutegitik kanpo ere.



INSTITUTUA
FRAY JUAN DE ZUMARRAGA-DURANGO

IES FRAY JUAN DE ZUMARRAGA-DURANGO BHI
FRAY JUAN DE ZUMARRAGA KALEA 23- 48200 DURANGO
WWW.DURANGOBHI.NET
INFO@DURANGOBHI.NET - 946817325

Durangaldeko herriak batuko dituen bidegorri sarea eratzeko pausoak emango dituela jakitera eman du EH Bilduk

Bizkaiko Foru Aldundiagaz harremanetan jarriko dira elkarlana bultzatzeko asmoz; horrez gain, eskualdeko hainbat herritan mozioak aurkeztuko dituzte



Aritz Bravo, Idoia Buruaga, Eneritz Azpitarte eta Endika Jaiio.

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Durangaldeko EH Bilduko kideek asteon jakitera eman dutenez, Durangaldeko herriak batuko dituen bidegorri sarea eratzeko pausoak ematen hasiko dira. "Instituzioetatik ingurugiroa errespetatzen duten herriak bultzatu

Ingurugiroa errespetatzen duten herriak bultzatu gura dituzte eskualdeko EH Bilduko kideek

behar ditugu, eta apustua egin behar dugu eredu bizigarriak, ja-sangarriak eta gizatiarrak eraikitzeke", adierazi du Idoia Buruaga EH Bilduko kideak.

Durangaldeko bidegorri sarearen helburu nagusiak lanerako joan-etorri alternatiboak

Lanera joateko alternatibak ahalbidetu eta aisialdi osasungarria bultzatu gura dituzte

ahalbidetzea eta familian egin daitezkeen aisialdi osasungarriak bultzatzea dira, besteak beste. "EH Bilduk urratsak eman

EH Bilduk beste mugikortasun eredu bat bultzatu gura du bidegorriagaz

gura ditu beste mugikortasun eredu bat martxan jartzeko, eskualde honetan kalitatez bizi ahal izateko", adierazi dute.

Bidea egiten hasteko asmoz, Bizkaiko Foru Aldundiagaz harremanetan jarriko direla eta

Eskualdeko gainontzeko indar politikoek gai honi buruz duten iritzia ezagutu gura dute

eskualdeko hainbat udaletan mozioak aurkeztuko dituztela jakitera eman dute. Hartara, gainontzeko indar politikoek gai honi buruz duten iritzia ere ezagutuko dute.

Auto bategaz zelaia hondatu zutenetik, Gasteizen jokatu behar du Vulcanok

Futbol-zelaia elurtuta zegoen egun batean, norbaitek sarrerako kandadua apurtu zuen eta auto bategaz barruan derrapatzen ibili zen zelaiko zati handi bat hondatuta utzita

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Neguko bigarren elurtean gertatu zen, inauterien bueltan. Futbol-zelaia elurtuta zegoela, norbait barrura sartu zen auto bategaz, eta zelaia guztiz hondatu zuen, bertan jirabiraka ibilita. Belar naturaleko zelaia zangaz eta zuloz beteta geratu zen. Harrezkero, Vulcanoko gaztetxoek Lemoan jokatzen dute, eta nagusiek, Gasteizko Olabide ikastolako azpiegituretan. Hiru bat hilabete daramatzate herritik kanpora jokatzen.

Udalak konponketak ordaindu ditu eta Vulcano gestioaz arduratu da. Zangak estalita daude, eta belarra ereinda, baina ezin dute erabili harik eta lurra egonkortu eta belarrak indarra hartu arte.



Futbol-zelaia zangaz eta zuloz beteta geratu zen.

Bertso bazkaria Berrizen, Berton Bertokoaren eskutik

Maiatzaren 5ean egingo dute bazkaria, eta joan gura dutenek aurrez hartu beharko dituzte txartelak

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berton Bertokoa dinamika bertso bazkaria antolatu du maiatzaren 5erako, Berrioiz Guraso Elkartearen laguntzagaz. Bertso bazkaria Learreta Markina eskolako jantokian izango da, 14:30ean.

Bertso eskolako umeek ere parte hartuko dute bertan.

Bestalde, gaur da bazkarirako txartela erosteko azken eguna. Txartelak Ganeko, Fonda eta Kantoi tabernetan eta Amalur liburudendan daude salgai.



Berrizen sindikatuek dinamika atxikimendua eman zioteneko argazkia.



Hareek denporak!

Pekotxak lagun taldea, 1985eko sanprudentzioetan

Traña-Matienako jaiak hasi berri dira eta irudietako lagun taldea sanprudentzioak ospatzen ageri da, baina ez aurtengo aldiko jaietan. Argazkiak 33 urte ditu. 1985ean Ostendi jatetxeko Pekotxak lagun taldeak argazki hauxe atera zuen euren taberna kutunaren aurrean.

Matienako hiru tabernatako bonboekin ageri dira: Ostendi ('Kali' izenagaz ezagutzen da)

Pub Tao eta Oxford kafetegia. Miguel Angel Oregui Ostendi tabernako jabearen ustez, jaien hasieran ateratako argazkia da, "jaietako arropak oraindik garbi" ikusten direlako. Ordukoak oso jai jendetsuak zirela gogoratzen du Oreguik. Zelaletatik eta inguruetatik ez ezik, Bizkaia osotik, Gipuzkoatik eta Arabatik etortzen ei zen jendea Traña-Matienako jaietara.

Sei hankako mahaia

Julian Rios Santiago SQ-2D



Zer da udalgintza?

Udala herritarren esparrurik gertukoena da demokrazia soziala, demokrazia ekonomikoa, benetako eta parte-hartzailea aurrera eramateko. Esparrurik egokiena da herritarrei entzuteko, baina, horretarako, ezinbestekoa da entzuten jakitea eta ateak zabalik izatea.

Udal ordezkari moduan, kalean egoteko derrigorra dugu, kaleotan ibili beharra dugu, gure auzotako errealitatea bertatik bertara ezagutzeko. Instituzioetako moketan egonda, errealitatea urrun geratuko zaigu, eta herritarren beharrezan ikuspegia galduko dugu. Politika zaharren ondorioz, alderdi politikoek euren interesei baino ez diete begiratzen, lanpostu-agenda bilakatu dira, eta, kasu askotan, multinazionalen antza hartzen dute. Hartara, bertako erabakiak beste non-bait hartzen dira. Durangoko beharrezanetarako erabakiak ez dira jada hemen, gure herrian, hartzen, durangarren interesa axola ez zaien tokietan baizik. Horregatik orain arteko isiltasuna, horregatik informaziorik eza trenaren lehengo lursailen etorkizunari dagokionez. Bost axola haiei herritarrek nahi dutena! Gune horiek zementuz jantzi nahi dituztenen interesa gailentzen da.

Udalgintza ona, praktika onak eta espiritu demokratikoa kontuan hartuko balira, herritarrei kontsulta egingo litzaieke gai garrantzitsuei buruz, ezer inposatu barik. Ea, ba, behingoz, udalgintza-aren espiritua nagusitzen den, eta ez inposaketarena.

*Erredakzioan itzulia

Durangaldea asteen

Tenperatura mantentzen lagunduko duen itxidura ezarri dute Astolako igerilekuan

Abadiño Igerilekuetatik aldagela eta takilletaraino doan bi-dean kristalezko itxidura bat ezarri dute, eraikinaren barruko tenperatura mantentzen laguntzeko. Jose Luis Navarro Abadiño-ko alkatearen berbetan, erabiltzaileak pozik agertu dira aldake-tagaz eta aldea nabaritu ei dute. 7.000 euro ordaindu ditu udalak obragatik.

Herria auzo elkarteak auto klasikoen erakusketa antolatu du astelehenerako

Durango Herria auzo elkarteak egitarau bete osatu du maiatzaren 1aren bueltan. Astelehenean auto klasikoen erakusketak zabalduko du egitaraua. Maiatzaren 1erako, ostera, zikloturisten martxa Iñaki (Okly) VIII. memoriale antolatu dute. Dantzariak eta umeentzako puzgarriak ere izango dira. Arratsaldean, umeen danborrada egongo da, Tabira Musika Bandak lagunduta.

Maiatzaren 1ean Zornotzan egingo duten manifestaziora deitu du LABek

Durangaldea Eskualdeko mobilizazioak antolatu ditu LAB sindikatuak maiatzaren 1erako. Durangaldean, Zornotzan batuko direla aurreratu dute. Goizean, 10:00etan, kotxe karabana egingo dute, Ermuatik hasita Zornotzaraino. 12:00etan manifestazioan batuko dira, eta, ostean, bazkari herrikoia egingo dute Zelaletan.

Iritzia

ASTEKARIA@ANBOTO.ORG • ASTEARTEA 17:00AK ARTEKO EPEA

LAGUN TALDEA OSATU DUGU

Zenbat ardura eta zenbat buruhauste puzzlea egiteko; motibazioari eta inplikazioari esker lortu dugu.

Jende gutxi egiten zuen apustu gure semeen saskibalo taldearen alde (Nevers). Guztion esfortzuarri esker eta, batez ere, entrenatzaileei esker (Mou eta Yanire) taldearen helburuak lortu ditugu: Lan eta lagun talde on bat osatzea.

Datorren asteburuan Marina D'or-eko torneoan ondo pasatu eta gozatu, mutilak!

Eskerrak eman nahi dizkizuegu talde hau sortzen lagundu diguzuenoi!



Lorena Aparicio, Neverseko saskibalo taldeko ordezkaria.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9.-IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

JUAN OROBIOGOITIA BHI

Batxilergoko modalitateak D eredu

- Zientzia eta teknologia.
- Giza eta Gizarte Zientziak.

- Euskarazko doako kalitatezko hezkuntza.
- Orientazio akademiko-profesionala.
- Guraso, ikasle eta langile guztien partaidetza.
- Teknologia berrien aldeko apustua.

Aurrematrikula maiatzaren 2tik 14ra

Olaburu 3 - IURRETA

Tel.: 94 681 04 61

www.oroibioitiabhi.hezkuntza.net





'Dantzan'

DANTZALDIA
DURANGO :: Apirilak 28

Dantzaren Nazioarteko Eguna 2018.

Egun osoko egitaraua prestatu du L'atelier dantza eskolak Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko. Bertan, 400 lagun baino gehiago batzea espero dute antolatzaileek. Zortzigarren urtea du ospakizun honek Durangon. 10:30ean izango da lehenbiziko ekitaldia. 18:00etan, ostera, L'atelierrek eskolako kideen dantzaldia egongo da Landako Gunean.

Apirilaren 27an

MATIENA jaiak

- **18:00** Kuadrilla guztien bilera – Trañako zubian

Donien Atxa ekartzeko.

- **20:00** Donien Atxa

jasotzea. Giroa alaitzen Ustekabe fanfarrea, Iluntze taldearen dantza saioa eta urteko lagun ospetsua saritzeko ekitaldia.

- **21:00** Txupinazoa – Txosnagunean.

- **21:15** Parrillada, Traña plazan.

- **23:00** Oxabi - Jaialdia, Traña plazan.

DURANGO deialdia

'Angula Ustelak' elkartasun bira; Ainhoa Intxaurrendieta eta Igor Melchorren (El Periodista Canalla) hitzaldia, 18:00etan, Plateruenean.

ZORNOTZA musika

Pianoa eta taldeak, Zubiaur Musika Eskolako pianoko eta ganbera musikako ikasleen entzunaldia, 19:00etan, Zelaiaetako auditorioan.

ZORNOTZA musika

Joao Afonso & Rogerio Pires 'Terra da Fraternidade' biraren baitan, 20:15ean, Zornotza aretoan.

ELORRIO deialdia

Gazte afaria, 21:30ean, gaztetxean.

Apirilaren 28an

MATIENA jaiak

- **11:00** Txanbolin taldeko txistularien kalejira.

- **13:00** Done Zezili abesbatzaren erakustaldia

- **14:00** Herri bazkaria, Traña plazan.

- **17:00** Kuadrillen arteko jokoak, Traña plazan.

- **19:00** Mozorro kalejira Irultxa fanfarreak alaituta, Trañabarren kalean.

- **21:00** Mozorro txapelketako sari banaketa.

- **22:15** Su artifizialak, tren geltoki ondoan.

- **23:00** Jaialdia Traña plazan: **Puro Relajo** eta **Garilak 26**.

ELORRIO deialdia

Alargunen urteko batzarra, 10:30ean, Arriolan.



Terra de Fraternidade

KONTZERTUA
ZORNOTZA :: apirilak 27

DURANGO ipuin

kontaketa

Haurrentzako 'Zu eta Ni' ipuin kontaketa Dorleta Kortazarren eskutik, 12:00etan, Bizenta Mogel bibliotekan.

ELORRIO deialdia

XB Rock elkartasun jaialdia (egun osoko egitaraua egongo da), 18:00etan, gaztetxean.

DURANGO deialdia

'Mugak Zabalduz' karabanari elkartasuna eta babes adierazteko elkarretaratzea, 12:30ean, Andra Marian.

DURANGO deialdia

'Gazteon Ordua Da! Etxebizitza eskubidearen alde' jardunaldiak; hitzaldia Elkartzen, Judimendiko eta Oreretako esperientziak ikusteko, 11:30ean, bazkaria, 14:30ean, 'Zabalduko Ditugu, non aurkitzen gara eta nora goaz?', 17:00etan, manifestazioa, 18:00etan, Ezkurdin.

ZORNOTZA

ipuin kontalaria 'Munduan Asko Bezala' Eneko Haritza ipuin kontalariaren eskutik, 13:00etan, liburutegian.

DURANGO ospakizuna

'Dantzaren Nazioarteko Eguna' L'Atelier dantza eskolaren eskutik. Egun osoko egitaraua egongo da; umeentzako tailerrak eta kalejira, 10:30-12:30 bitartean, Landako Gunean, Ballet barra, 13:00etan, Sanagustinalden, bazkaria, 14:30ean, Plateruenean, L'Atelier dantza taldeen emanaldiak, 18:00etan, Landako Gunean.

ELORRIO errugbia

Elorrio-Tarragona-Cisneros errugbiko triangularra, errugbi-zelaian.

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

MENDI MARTXA Gernika, Oiz eta Berriz lotuta

MENDIA • Berrizko Udalak, Al-
dundiak eta Bizidun Nagusien
Elkarteak XXIII. Mendi Ibilbi-
dea antolatu dute zaturako.
Ibilbidean, Gernika, Oiz eta
Berriz lotuko dituzte. Autobusa
07:00etan irtengo da Berriztik.
07:10ean Elorriotik, 07:20an
Traña Matienatik eta 07:30ean
Durangoko geltokian geratuko
da.



BERRIZ dantza

Hariak ikuskizuna,
20:00etan, Kultur Etxean.

OTXANDIO antzerkia

**Inpro taldearen
'Supituki' antzezlana
(aurretik afaria egongo
da txokoa, 5 euroren
truke),** 22:30ean,
gaztetxean.

Apirilaren 29an

MATIENA jaiak

- **11:00-13:30** Umeendako jolastokia, Traña plazan.
- **11:00** Txanbolin taldeko txistularien kalejira.
- **12:30** Marrans-en (aharien) entzierroa. Irteera Trañabarren etorbidean eta helmuga Traña plazan.
- **16:30** Ginkana, Traña plazan.
- **17:00-19:00** Umeendako jolastokia, Traña plazan.
- **19:00** Haur animazioa, Traña plazan: **Reziklato**
- **20:00** Olot-La Garrotxako produktuen dastaketa, Traña plazan.
- **21:30** Umeendako jaialdia, merkatu plazan: **Xaibor**
- **23:00** Correfoc Oloteko **Els Diables de la Gradera** taldearekin Traña plazan.

DURANGO deialdia

**'Sorginolako sukaldia
eraikitzen' auzolana,**
11:00etan, Sorginolan.

BERRIZ musika

**Gente Mayor (Noise Rock
Cadizetik) eta Leowski
(Postpunka Italiatik),**
20:00etan, gaztetxean.

Apirilaren 30ean

- **12:00** Autodefentsa feminista tailerra, Traña plazan.
- **23:30** Kontzertua, Traña plazan: Kaotiko
- **01:00** Play Back lehiaketa, Traña plazan.
- **02:00** Jaialdia, Traña plazan: Zirkirik Bez



Maiatzaren 1ean

MATIENA jaiak

Goizean **Geu Be** taldeak txahal bat erreko du Traña plazan.

- **10:00** Nekazari azoka, Traña plazan.
- **11:00** Pilota tailerrak, frontoian.
- **12:00** Herri kirolak, Traña plazan.
- **17:00** San Prudentzio pilota txapelketako finala.
- **18:00** Kalejira **Brincadeira** batukadagaz.

Maiatzaren 4an

DURANGO literatura

'Hitzez eta Ahotsez' etenik gabeko irakurketa, 17:00etan, Plateruenean.

ELORRIO musika

Angel Stanich Banden kontzertua, 22:00etan, Arriolan.

Maiatzaren 5ean

DURANGO musika

Unax Nogaren emanaldia, 13:00etan, Plateruenean.

ELORRIO dantza

Goizaldi dantza taldearen ikuskizuna, 18:00etan, Arriolan.

Apirileko agenda



24	"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA" Reading club 18:30-20:00 The hound of Baskervilles / Arthur Conan Doyle
25	"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA" 10:00 Nagusientzako XL irakurketa kluba Azalerako ipuinak 16:45 (0-18 hilabete) 17:30 (18-36 hilabete)
27	"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA" 18:00 Haurrentzako ipuin kontalaria Miren Larrea "Nire bidea" (3/7 urte) 19:00 Helduentzako Ipuin kontalaria
28	"SAN MARKUEK 2018" (Mozorro eguna) 12:00 Feriaren hasiera 17:00 Maiztegi Herri Eskolako umeen dantza erakustaldia eta ondoren ume jolasak Iluntzean, TORTILLA TXAPELKETA
29	"SAN MARKUEK 2018" (Mozorro eguna) 12:00 Meza Ondoren Iurretako Mikel Deuna dantza taldea Giroa alaitzeko trikitalariak egongo dira 18:00 Asto probak



Maiatzaren 4an sukaldaritzako tailerra
Zigor Iturrietagaz; ostean, umeen
'Mastertxef'

DURANGO antzerkia

'Zugan Ni' antzezlana gazteen antzerki jaialdia, 19:00etan, San Agustín kulturgunean.

BERRIZ musika

Izaroren kontzertua, 20:00etan, Kultur Etxean.

Maiatzaren 6an

DURANGO mendia

Mugarri Eguna. Ibilbidea: Andra Mari-San Andres-Dukebaso-Santa Luzia-Axmokil-Mugarrikolanda-Artzetagane-Mugarrikolanda-Landaederra, 08:00etan, Andra Marian.

ABADIÑO musika

Baske Street Boys, Eskupitajo eta Muted taldeen kontzertua, 23:00etan, txosnagunean.

Zine- ma

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Leo Da Vinci**
barikua 27: 18:15
domeka 29: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **Vengadores. Infinity Wars**

barikua 27: 19:00/22:00
zapata 28: 16:30/20:30
domeka 29: 17:15/20:30
astelehena 30: 17:15/20:30
martitzena 1: 17:15/20:30
eguzatena 2: 20:00

• 7 Dias en Entebbe

barikua 27: 19:00/22:00
zapata 28: 16:30/20:30
domeka 29: 17:15/20:30
astelehena 30: 17:15/20:30
martitzena 1: 17:15/20:30

• Cada Dia

barikua 27: 19:30
zapata 28: 17:00/19:00
domeka 29: 17:00/19:00
astelehena 30: 17:00/19:00
martitzena 1: 17:00/19:00

• Campeones

barikua 27: 22:00
zapata 28: 21:15
domeka 29: 21:15
astelehena 30: 21:15
martitzena 1: 21:15

:: Elorrio ARRIOLA

• **The Florida Project**
zapata 28: 22:00
domeka 29: 20:00
astelehena 30: 20:00

:: Zornotza ARETOA

• **La Casa Torcida**
barikua 27: 20:15
zapata 28: 19:30/22:00
domeka 29: 20:00
astelehena 30: 20:15



Xabi Boveda Garai
Bilbo | 1961

Marisa Barrena Larruzea
Zornotza | 1951

Ixone Aroma Barrena
Durango | 1982

“Jendeak esaten zigun euskaraz irakurtzerakoan ez zuela ulertzen; horma hori apurtu behar da”

Euskal literatura jendarteratzea helburu duen Hitzez eta Ahotsez ekimenean 300 lagunek parte hartuko dute

DURANGO • JONE GUENETXEA

'Lurra'. Gai zehatz bezain zabal hori ardatz hartuta, zazpi orduko irakurraldia antolatuko dute maiatzaren 4rako Plateruena kafe antzokian. Hitzez eta Ahotsez ekimenaren egitarauko ekitaldi nagusia izango da. Bazkaloanean, 17:00etatik gauerdia arte, euskal literaturaren harribitxiak zein parte-hartzaile bakoitzak sortutakoak plazaratuko dituzte.

Lurra gaia izango duzue ardatz. Zer dela-eta?

Xabi Boveda: Parte hartuko duen pertsona batez egon nintzen atzo, eta esan zidan lurra betiko gaia dela. "Itsasoa zer da, ba? Bidaia zer da, ba? Joseba Sarrionandia zer da, ba? Lurra", erantzun zidan. Barregura eman zidan, baina, ondo pentsatuta, arrazoiak izan dezake.

Ixone Aroma: Testu irakurketan kon-

turatu naiz aurreko urteetako testu askok balio dutela gai honetarako. Beraz, gaia uste baino zabalagoa da. **Parte-hartzaile bakoitzak minutu bi izango ditu.**

Marisa: Minutu bi, asko jota. Minutu batekoa bada ere, eskertzen dugu, ekitaldian atzerapenik izan ez dadin. Guk proposatzen ditugun testu batzuk minutu bikoak dira. Testua norberak sortutakoa bada, arazoa minutu biko tarte horretan sartzea izaten da.

“

Minutu biko testuak dira, asko jota. Baina, minutu batekoa bada ere, eskertzen dugu”

■

Jende asko animatzen da gaiagaz lotutako sormen lanagaz?

Marisa: Batzuk bai, eta ilusioa egiten dit. Alde batetik, baditugu idazle profesionalak. Bestetik, ezagunak ez diren sortzaileak daude, euren koadernotxoan idatzi dutenak eta plazara irteteko jauzia ematen dutenak. Lan horiek ANBOTOren komunitatean kaleratu genituen iaz, eta horrek poza ematen die batzuei. Iaz sortzaile gazteen mailagaz harrituta gelditu nintzen.

Xabi: Jendeak beldurra kentzen du, bakoitzak berea erakusteko.

Ixone Aroma: Lehenengo urtean jendaurrean irakurtzea izan zen parte-hartzaileen erronka. Urtero etortzen direnek beldur hori gaindituta dute, eta orain beste erronka batzuk dituzte.

Ekitaldiaren indarguneetako bat izatera dinamiko da.

Marisa Barrena: Lehenengo urtean parte-hartzaile guztiek irakurtzen jardun zuten. Sarriren lana jorratu genuen urtean, aldaketa gertatu zen. Sarriren testu asko musikatuta daude, eta baten batek kantatu zezakeela pentsatu genuen. Girotua izateak saioa arindu egiten du. Bestalde, musikariak eurak ere interesagaz etortzen dira. Musikari batek atzo esan zidan abesti bat ekitaldi honetarako sortu duela.

Ixone: Beste diziplina batzuek ere badute lekua: antzerkiak, dantzak... Aurten ere herriko eragile batzuek gaiaren inguruan muntaiak prestatu dituzte.

Bosgarren urtea. Durangoko agendan finkatu den hitzordua da.

Xabi: Normalean, amaitzen denean, ez dugu jakiten hurrengo urtean egingo dugun ala ez. Baina, irakurraldia amaitzen denean, berehala animatzen gara hurrengo antolatzeke.

Ixone: Bezperan galdetuz gero, agian ez genuen berdin erantzungo.

Marisa: Lehenengo urtean antolatzea izan zen planteamendua. Jendea hurrengo urteari buruz galdetzen hasi zen, eta hurrengo ere antolatzea erabaki genuen.

Zelako bilakaera izan du?

Xabi Boveda: Bilakaerari dagokionez, askok behin baino gehiagotan parte hartu dutela esango nuke. Beraz, datorrenak badaki zein den errituala, zelan sartu behar den, nola... Horrek erosotasun puntu bat ematen du.

Ixone: Jendeak gaia zein izango den galdetzen digu kalean, zer edo zer irakurtzen ari direlako.

Marisa: Esango nuke urteotan saretxo bat sortu dela. Jendea partaide sentitzen da. Ekimeneko kide bat gehiago.

“

Jendeak gaia zein izango den galdetzen digu kalean, zer edo zer irakurtzen ari direlako”

■

Xabi: Arrazoi dute, izan ere, Hitzez eta Ahotsez ez gara gu. Herri ekimen bat da eta partaideok kide zarete.

Ixone: Bestela, zelan beteko genituzke zazpi ordu?

Erraza izan da hasieratik partaideen arteko aniztasuna mantentzea?

Marisa: Hasieratik argi izan dugu hori. Bai adin aldetik, bai ideologia aldetik... Ekimen zabala izatea gura izan dugu. Politikariak ere etortzen dira, beste guztien legez parte hartzera.

Xabi: Egun horretan berdinak gara denok (barrez).

Euskal kultura eta irakurzaletasuna bultzatzen dituen ekimena da hau. Zuek hirurok hezkuntza arloan diharduzue edo jardun duzue. Gazteen motibazioa duzue helburu?

Xabi Boveda: Gazteak hurreratzen dira hona, batzuek beren-beregi prestatzen dute irakurketa eskolan, baina nik partaideen kopuruan ikusten dut arazoa, mugatua da eta. Aurten ordu bat gehituko dugu.

Marisa: Gazteengana heltzea oso garrantzitsua da, baina adin guztietara heldu gura dugu. Euskaldunberriak titulu bat atera izan balute legez sentitzen dira jendaurrean irakurtzen dutenean. Erantzukizun bat dute eta batzuekin harrituta nago, ordutik euskaraz berba egiten dute eta.

Ixone: Lehenengo urtean eskolak bideratuta etorritako ikasleak —DBHkoak edo Batxilergoakoak— euren kabuz etortzen dira orain.



Xabi: Nire ikasle asko ez dira irakurtzera etorriko, baina gustatuko litzaidake entzutera baletoz. Orduan esango lukete: "Hau gauza ederra da. Literatura ez dago hain urrun".

Jende askok urrun sentitzen du euskal literaturata?

Marisa: Lehen urtean, Sarri aukeratu genuenean, zaila zela esaten ziguten denek, baina nork ez ditu bere testuak ezagutzen? Zati txikietatik hastea errazagoa da. Txatal hori irakurri ostean, liburu osoa irakurtzen dute askok.

Ixone: Irakurraldi bakoitzaren atzean testuaren egilea jartzen dugu eta jende asko fijatu egiten da.

Xabi: Literaturzaletasuna aipatu duzu, baina nik esango nuke oina-

“
Guri datozkigun gogoa eta indarra euskararen sustapenagaz lotuta daude”

“
Laguntzaileak eskertu gura ditugu: Durangoko Museoa, biblioteka eta Plateruena”

riari euskalzaletasuna dagoela. Hau bestela ez nuen asmatuko. Guri datozkigun gogoa eta indarra euskararen sustapenagaz lotuta daude.

Ixone: Jende askok erdarara jotzen du irakurtzerakoan.

Xabi: Literaturaren etiketa jarri digute, friki batzuk bagina lez. Nik gogoko dut literatura, baina mendira joatea ere gustatzen zait, futbola ikustea... Benetan hizkuntzarena dugu oinarrian.

Ixone: Solasaldietan jende askok esaten zigen euskaraz irakurtzerakoan ez zuela ulertzen. Horma hori apurtu egin behar da.

Marisa: Laguntzaileak eskertu gura ditugu: Durangoko Museoa, biblioteka eta Plateruena.



www.plateruena.eu

<p>PLATERUENA Kafe Antzokia Landako Hiribidea, 4A DURANGO Tel.: 946 030 300 jatetxea@plateruena.net</p>	<p>Apirilak 27 · 18:00etan ANGULA USTELAK Hitzaldia</p>	<p>Maiatzak 6 · 13:00etan UNAX NOGA Kontzertua</p>	<p>Maiatzak 11 · 21:30etan JAM SESSION Kontzertua</p>	
	<p>Apirilak 27 · 18:00etan ZUEKIN GAUDE Hitzaldia</p>	<p>Maiatzak 6 · 13:00etan UNAX NOGA Kontzertua</p>	<p>Maiatzak 11 · 21:30etan JAM SESSION Kontzertua</p>	

ZUGAN NI
Gazteen Antzerki Jaialdia
Maiatzak 5, zapatua
19:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

"Hizkuntza hitzen bidez eraikitzen denez, eraikinak egin gura ditut nik, metaforikoki"

Donostiako Kur galerian harrera ona izan eta gero, Durangon erakutsiko du Victor Arrizabalagak bere azkeneko bilduma, 'Letra Artean' maiatzean zehar ikus daiteke

ARTEA • ARITZ MALDONADO

Victor Arrizabalagaren (Mañaria, 1957) 'Letra Artean' erakusketa osatzen duten artelanak Durangoko Arte eta Historiaren museoan egongo dira ikusgai.

Zelako harrera izan du erakusketak?

Oso ona. Fernando Golvanok katalogoan dio obra mota kontzeptualago bat dela, eta, ildo berean, lan helduago bat dela. Nik uste dut obra potenteagoa dela; aurretik egin dudana oso harro nago, eta horri muzin egin gabe, oraingo bilduma honek indar gehiago duela uste dut.

Zein da 'Letra Artean'-en atzean dagoen kontzeptua?

Lengoaia batek dituen aukera eraikitzaileekin lan egin gura nuen. Hizkuntza hitzen bidez eraikitzen denez, eraikinak egin gura ditut nik, metaforikoki. Bisitariak beren buruari galderak planteatzea da nire obren helburua. Artelan guztiek izaera eraikitzailea dute, batek izan ezik, izaera narratzaileagoa du eta. Ezin da ahaztu, eskulturak, oinarrian, obra arkitektonikoak direla. Erakusketa honetan, *Lerro Artean* deitzen den obra bat dago, eta bertan espazioagaz jolasten da. Liburu batean, parrafo arteko espazioari deritza, baina, errealtatean, ez da horrela, espazioak hiru dimentsio dituelako.

Asko eragin dizu literaturak, beraz.

Beste zerbait ere badago. Lehengo

obran, pop eragina nabarmena zen. Andy Warholek eta Roy Lichtensteinek erabiltzen zituzten inpresio teknikek, komunikatzeko moduek-eta eragin handia izan dute nigan. Une batean, baina, ohartu nintzen eskultura beltzak [obra biluzik dagoenean, landu barik oraindik] interesgarriak direla bere horretan. Eta hortik dator nire norabide berria. Kolora albo batera utzita, orain beste muturrera egin dut jauzi. Kasu honetan, obrak abstraktuak dira, ez dago lengoaia enkriptaturik, eta hitzek ez dute mezu zehatzik. Hizkiak elementu eraikitzaile lez erabiliz, literatura eskulturara hurbiltzeko saiakera bat da.

Altzairua lantzen duzu zure artelanetarako. Zaila da?

“**Nire hurrengo helburua artista liburu bat egitea da; altzairuzko azalak izango ditu eta barruan inpresio batzuk**”

“**Pop-eko kolorea albo batera utzi eta beste muturrera egin dut jauzi, eskultura beltzetara**”



Arrizabalaga Arte eta Historia museoan, 'Letra Artean' erakusketaren inaugurazioan.

Bai. Lanaren zati bat azpikontratu egiten dut, oxiebaketa edo laser bidez moztu behar izaten delako. Eraikitzeko prozesua, baina, neuk egiten dut. Ideia bat dudanean, zirriborro bat egiten dut, eta badakidanean zer egin gura dudana, hizkiak eraikitzen hasten naiz. Muntaia lanetarako, ostera, Cesar Cediekek laguntzen dit.

Zenbat obra batu dituzu Durangoko erakusketak?

Durangoko Arte eta Historia museoan sei obra daude ikusgai. Estudioan gehiago ditut, baina horrela komeni zela uste dut, pieza bakoitza ikusi eta gozatu ahal izateko. Horieta bat, *Infinitum*,

Durangon egongo da ikusgai, lehenbizikoz.

Donostian, Durangon... beste inon erakusketarik egiteko asmorik?

Epe ertainera, behintzat, ez. Urtero erakusketa bat edo bi egiten ditut, eta ez dut uste aurten besterik egingo dudarik.

Aurrera begira, ze proiektu dituzu esku artean?

Artista liburu bat egitea da nire hurrengo helburua. Altzairuzko azalak izango ditu, eta barruan orain egiten dudanaren antzerako inpresio batzuk eta idazleren baten kolaborazioen bat. Gabonetarako kaleratzea gustatuko litzaidake; hori da nire asmoa.

Geure Durangaldea

Josune Aranguren Zatika
Kultura teknikaria



Hygge

Danimarkarrak munduko zoriontsuenak bilakatu dira, suitzarrei eta islandiarrei garaikurra irabazi ostean. Bizitzaren aurrean hygge (huga ahoskatzen da) jarreraz lortu dute. Ongizatea bilatzean datza: erlaxatu eta ahalik eta etxeko sentitu eta bizitzako ardurak ahaztu. Norbere burua zaindu, zigorrik ez hartu, bizitzako uneak atsegin bihurtzen ahalegindu, egunerokotasuna berezi egin eta atsegina bilatu une oro. Etxea bizitzaren agertoki eta sozializatzeko espazio duten herrialdean, abegikortasuna da nagusi, oinarri dituen bost zutabeetan islatuta: giroa, arropa, janaria, jarduerak eta konpainia. Kandelak, egurra eta gai naturalak, kolore beroak, txokolatea ere beroa... herrialderik hotzenetakoan. Armairua toperaino betetzeaz eta kotxea aldatzeaz ahaztu.

Horrek guztiak partekatuzetik hartzen du zentzua, bizi-jarduera ni-gan garatu beharrean, gu-gan garatuzetik. Guztion ongizatea bilatzeak eraman ditu helmuga horretara daniarrak eta hala egitearen kontzientzia aldarrikatzen dute.

Kontzientziaren aldarrikapena azkenaldion maizegi entzun ez ote dugun nago. Elikadura kontzientea, kontsumo kontzientea, ez estresatzeko kontzientzia hartu, umeen heziketa kontzientea praktikatu eta abar zabaldu dira aldaketarako giltza eskatzen duten prozesuetan.

Burujabetasuna galdu dugula uste badugu, askatasunaren bidetik aldentuta sentitzen bagara, piztu dezagun kandelatxo bat afalorduan.

<http://josunearanguren.blogspot.com.es>

hitz #nobedadeak

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

AZALA ERRE
Danele Sarriugarte
2018

ILARTXOREN
BIDAIA
HANDIA
Cali & Mourrain
2018

AINGURAK
Inun
2018

CERAMICAS
MACOBER

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Chimeneas
Cerámicas
MACOBER

**ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA**

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

Zure iragarkia jarri nahi duzu?

94 621 79 02

anboto
komunikabideak

Txaber Altube irabazle Ondarroako arratsaldeko saioan; Iker Apraiz laugarren sailkatu da

Bizkaiko txapelketako udaberriko fasearen hurrengo saioa Gautegez Arteagan jokatu da, eta Beñat Molina bertsolari durangarrak abestuko du kanporaketa horretan

BERTSOLARITZA • A.M.

Saio bi jokatu ziren joan den domekan Ondarroan, eta Txaber Altube abadiñarra izan zen arratsaldeko kanporaketan punturik gehien eskuratu zituen bertsolaria; 185,5 puntu erdietsi zituen Altubek. Iker Apraiz atxondarra ere aritu zen bertsotan kaporaketa horretan, eta 162 puntugaz, laugarren postuan amaitu zuen. Inazio Vidal izan zen bigarren, Lander Ibarluzea hirugarren, Illart Gumuzio bosgarren eta

Aitor Arrizubieta seigarren. Goizeko saioa Peru Vidalek irabazi zuen. Bestalde, udabarri faseko Otxandio kanporaketan Josune Aramendi bertsolari markinarra gailendu zen, 191,5 puntugaz. Giro ederrean jokatu ziren kanporaketa guztiak.

Beñat Molinaren txanda

Udabarriko faseak aurrera darrai. Hurrengo saioa bihar izango da, hilak 28. Gautegez Arteagako kultur

Bihar Gautegez Arteagan egingo den saioan Beñat Molina durangarrak abestuko du

etxean lehiatuko dira bertsolariak, 17:30ean. Beñat Molina durangarrak abestuko du bertan, Iker Garitagoitia, Itxaso Paya, Joseba Barandiaran, Julen Ibaranguoitia eta Maider Barañanogaz batera.



Txaber Altube Ondarroako saioan.

Osasun gida

anboto

Optometria
PSE: 162/13

keinu optometria zentroa

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometriari teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboak.
- Orto-k.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

Pedagogia
PSE: 63/63

UGATZ

UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA
Laguntza goiztiarra, psikomotritzitatea, fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090

Fisioterapia
PSE: 119/13

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Fisioterapia
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Fisioterapia
PSE: 155/17

HOBETU
Fisioterapia & Podología

info@hobetu.es
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2
P.K./ 48230 Elorrio
www.hobetu.es

Podologia
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
PODOLOGIA KLINIKA
GOIATZ MURUA
Podologoa
AINHOA ELORZA
Podologoa
NEREA RODRIGUEZ
Podologoa
Kiroprodia, onikopatia, alteraziodermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 behea DURANGO
946 203 630

Odontologia
PSE: 145/13

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{Muruetatorre, 2C blokea, behea}
DURANGO
Tel.: 946 819 951
Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

Odontologia
PSE: 112/13

J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

Estetika
PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Psikologia
PSE: 62/11

JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728



Gotzon Pujana Orbezo
Kulturaleko gazteen taldeko kapitaina
Durango | 1999

“Bigarren taldea eta gazteak igota, bihar nagusiak animatu beharra dago liga irabazi dezaten”

Bihar Hirugarren Mailako Liga irabazi dezake talde nagusiak eta gazteen taldeko kapitaina hantxe izango da animatzen

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Kulturaleko gazteek zorra kitatu dute. Beste inogaz baino gehiago, euren buruagaz zuten zorra. Iaz Nazional Mailatik jaitsi ziren eta aurren, kosta ahala kosta, maila hori berreskuratu gura zuten. Pentsatu eta egin. Merezitako igoera lortu dute. Gotzon Pujana gaztea da taldeko kapitaina.

Azken partidua. Igotzeko hautagai biak, Balmaseda eta Kulturala, elkarren kontra. Gainera, etxetik kanpora jokatu behar. Tentsio handiko partidua izan zen?

Balmasedako zaleek presio handia sartu zuten. Irainak ere entzun genituen tarteka. Baina guk lan ona egin genuela uste dut. Kontzentrazioari eutsi genion eta, azkenean, gure helburua lortu genuen.

Husna berdindu zenuten eta puntu bat nahikoa zen zuentzat. Markagailuak iradokitzen duen moduan, aukera gutxiko partidua izan zen?

Bai. Partidu ia osoa zelai erdian jokatu zen. Balmaseda area kanpotik saiatu zen. Guk partidu hasieran eta amaiera-amaieran pare bat aukera izan genituen. Baina, oro har, aukera gutxiko partidua izan zen.

Berdinketa nahikoa zela jakiteak jokamoldea baldintzatu zizuen?

“**Euskal Ligatik Nazional Mailara alde handia dago. Erritmo ikaragarrian jokatzen da Nazionalean**”

Hasiera batean, ez. Gol bat sartu gura genuen, kosta ahala kosta. Bagenekien berdinketaren bila zelairatzea arriskutsua zela. Jakina, partidua aurrera doan heinean... azken minutuetan dena emanda defendatu genuen berdinketa.

Hil ala biziko partidu hori jokatu behar izan zenuten, azken batean, aurreko jardunaldian ez zinetelako kapaz izan etxean Gernika menderatzeko. Bigarren zatia eskasa izan zen. Zer gertatu zitzaizuen partidua hartan?

Arin aurreratu ginen, Inaxio Mentxakaren golari esker. Lehen zatian Gernikak ez zuen arriskurik sortu. Horregatik, edo ez dakit zergatik, bigarren zatian behar adinako intentsitaterik barik irten ginen eta garesti ordaindu genuen. Bost minutuan partiduari buelta eman zioten. Eskerrak azken unean Unai Iruarrizagak berdinketaren gola sartu zuela. Azkenean, puntu bat salbatu genuen.

Beharbada, partidua horretako okerrera izan zen igoera zaleen aurrean ospatzeko aukera galdu zenutela.

Hori izan zen mingarriena. Markagailuan aurreratu ginenean gertu ikusten genuen, eta zaleak ere asko animatu ziren. Baina, azkenean, ezin izan genuen lortu. **Zure ibilbideko lehen igoera da?**

Bai. Azken urteetan, Kulturaleko gazteen taldeak birritan galdu du maila, eta iazko jaitzieran ni zein

beste taldekide batzuk geunden. Bagenuen geure buruagaz zor moduko bat. Iaz txarto pasatu genuen. Jokalari gutxi geunden, 16 bat. Alderdi fisikoak lagundu zigun bitartean eutsi genion, baina azken partiduetarako nekea nabaria zen, batez ere bigarren zatietan.

Datorren urtean ezingo duzu gazteen Nazional Mailan jokatu, adinagatik. Pena ematen dizu aurtengo lorpenagaz ezin gozatzeak?

Ba, bai, pena handia ematen dit. Aurten egin dugun lan guztiaren ostean, gustatuko litzaidake lortutakoa defendatzea.

Atzetik datozen erronka polita bezain zaila utzi diezue.

Euskal Ligatik Nazional Mailara alde handia dago. Nazionalean minutu batean distraitu eta hiru gol sartzen dizkizute. Erritmo ikaragarrian jokatzen da. Baina oso kategoria polita da eta datorren urtean taldean daudenek lan ona egingo dutela uste dut. Zorrikerik onena desio diet denei.

“**Lehen taldera batzea gaitza da, baina badut esperantza hurrengo urtean Erregionalekora batzeko**”

Bigarren taldeak eta zuek igoera lortu duzue eta nagusiak liga irabazteko zorian daude.

Aurtengo denboraldia ikusgarria izaten ari da klubarentzat. Bigarren taldea eta gazteak igota, bihar nagusiak animatu beharra dago liga irabazi dezaten. Puntu bakarra falta zaie.

Nagusiek etxean jokatuko dute. Zapatuan, 19:00etan, izango da, Deusturen aurka. Tabiran izango zara partidua ikusten?

Bai, eta jende asko etortzea espero dut. Klubarentzat eta zaleentzat lorpen handia litzateke Hirugarren Mailako Liga irabaztea.

Zuk non ikusten duzu zure burua hurrengo denboraldian?

Lehenengo taldera igotzea oso gaitza da, baina badut esperantza Erregional Mailakora batzeko. Ezinezkoa bada, beste talde bat aurkitzen ahaleginduko naiz. Futbola afizio bat baino gehiago da niretzat.

Zerbait gehitu gura duzu?

Aitor Azpitarte eta Aitor Maiztegi gure entrenatzaileei eskerrak eman gura dizkiet. Kontu pertsonalengatik ez dute denboraldia gugaz amaitzerik izan, baina eurak barik ez genuen lortuko. Eta eskerrak azken partiduan gure entrenatzaile izan ziren Joseba Aranari eta Jose Antonio Sanchisi ere. Gurasoen lana ere gorai patu gura dut, beti guri laguntzen egoten direlako.

Durangoko padel txapelketa solidarioran batutako diruagaz Dravet sindromea duten umeei lagunduko diete aurten

Desafia Dravet izeneko elkarteari emango diote ekimenean lortutako dirua

PADELA • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Fair Play Padel Klubak 5. Padel Solidario antolatuko du datozen asteetan. Aurten batutako dirua Dravet sindromea duten umeei laguntzera bideratuko dutela azaldu dute antolatzaileek.

Gaixotasun arraro moduan izendatua dago, 20.000 eta 40.000 jaiotza arteko tartean kasu bat egoten da eta. Haurtzaroan izaten den epilepsia mota bati dagokio. Egoitza Mungian duen Desafia Dravet elkarteak mota honetako sindromea duten gazteei laguntzen die eta gaixotasunari sendabide bat aurkitzeko ikerketak

ere finantzatzen ditu. Durangoko padel klubeko kide batek gaixotasun hori duen ume baten gurusoak ezagutzen ditu, eta haren bidez izan zuten gaixotasun horren berri. Horrela, aurten dirua Desafia Dravet elkartekoei ematea ideia ona iruditu zitzaion. Aurreko aldietan Geu Be, Rio de Oro eta beste elkarte batzuetara bideratu zuten laguntza.

Izen-ematea eta partiduak

Izen-ematea maiatzaren 4an eta 7an egin daiteke, Abadiñoako Eroskin, 19:00etatik 21:00etara. Txapelketa binaka jokatu dute,

Izen-ematea maiatzaren 4an eta 7an egin daiteke Abadiñoako Eroskin; plazak mugatuak dira

gizonetan eta emakumeetan. Maiatzaren 18an, 19an, 20an eta 25ean ligaxkako partiduak jokatu dituzte. Bikoteek egun berean jokatu dituzte ligaxkako partiduak denak. Multzo bakoitzeko irabazleek finalerdiak jokatu dituzte, maiatzaren 26an. Finalak hurrengo egunean izango dira.



Gizonezko 32 bikotek eta emakumezko beste hainbestek parte hartu dezakete gehienez.



Zalduako jokalariek igoera ospatzen.

Zaldua saskibaloia taldeak igoera eskaini die zaleei 40. urteurreneko ospakizunean

Ospakizun bikoitza izan zuten Zalduako zaleek joan zen asteburuan: urteurren jai eta gizonen taldearen igoera. Hurrengo urtean, Lehenengo Erregionalean jokatu dute

SASKIBALOA • JOSEBA DERTEANO

Jokalariek denboraldi hasieran desio bat eskatzeko aukera izan balute, ziurrenik, ez zen joan zen asteburuan bizitakotik oso aparte ibiliko. Zaldua saskibaloia taldeak 40. urteurrena ospatzeko antolatu zuen jaiegunean bertan lortu zuten igoera, bertaratutako zaleen gozagarri.

Zalduako gizonen taldea orain urte bi berreskuratu zuten. Jokalari faltagatik desagertu ostean,

ibilbide berri bati ekin zioten hainbat jokalariren konpromisoa batuta. Iaz ezin izan zuten igoera lortu, goian ibili ziren arren. Bigarren aukeran, ostera, ez dute

Etxean jokaturako partiduan 68-49 menderatu zuten Unkinako taldea

hutsik egin. Joan zen asteburuan erraz menderatu zuten Unkinako taldea (68-49), eta jokalariek zaleekin batera ospatu zuten igoera. Hurrengo denboraldian, Bizkaiko Lehenengo Erregionalean jokatu dute.

Gizonen partidu horren ostean, jokalari beteranoak eta gazteak uztartzen zituen emakumeen partidua jokatu zuten. Izan ere, Zalduak izan zuen lehenengo taldea emakumeena izan zen. Emakumeena sortu eta handik hiru urtera sortu zuten gizonen taldea. Gaur egun talde biek jarraitzen dute.

Asteko kirolaria



JOSEBA MATOS MENDOZA

Durango, 1999

“Entrenamendu gogorak izan dira eta horrek fisikoki indartzen lagundu dit”

Durangar gazteak senior mailako bere lehenengo igoera ospatu du Zaldua taldeagaz.

jokatzeko berezko dohainak dituela. Gainera, bere lehenengo denboraldian igoera bat ospatu ahal izan du.

Zein taldetan hasi zinen saskibaloian jokatzeko?

Jesuitak ikastetxean hasi nintzen, 10 urteagaz. Gero, Tabirakora batu nintzen, eta, aurten, nire lehenengo denboraldia dut Zalduan.

Zein postutan jokatzeko duzu?

Joko antolatzaile batzuetan, eskolta besteetan... Entrenatzaileak eskatzen didana, huraxe egiten saiatzen naiz.

Zelan hartu zaituzte Zaldibarren?

Oso ondo hartu naute, lehenengo unetik. Taldean giro ona dago eta igoera lortzeko gakoetako bat hori izan dela uste dut.

Entrenatzaileekin ondo konpondu zara urtean zehar?

Gorka eta Gari dira gure entrenatzaileak eta, egia esanda, ez dut kezarik. Oso ondo konpondu naiz eurekin.

Espero zenuen igotzea?

Nik neuk ez nuen espero eta oso polita izan da. Konstantzia izan dugu urte osoan zehar eta erregularrak izan gara.

Datorren urtean, Zalduan jarraitzeko asmoa duzu?

Bai, oso pozik nagoelako. Maila

Bizkaiko Bigarren Erregionaleko gazteen artean, gehien nabarmendu den jokalarietakoa izan da. Dakitenek diote saskibaloian

bat gorago aritzea egokituko zaigu. Uste dut dugun taldearentzat maila aproposa dela eta erronka izango da berari eustea.

Aurtengo denboraldiak ikasteko balio izan ditu?

Bai. Entrenamenduak gogorragoak dira eta horrek fisikoki indartzen lagundu dit. Horregaz batera, defentsa lanean ere ikasi dut. Ni baino gorputz sendoagoa dute askok eta ez da erraza sarritan, baina alderdi horretan ere hobetzen nabil.

Garaipena urteurren ospakizunean lortu duzue.

Bai, liga hasieran plana egin izan bagenu, ez zitzaigun hobeto irtengo. Zaleek merezi zuten ospakizun hori.

Durango Kirol Taldeko kideek euren nagusitasuna erakutsi dute Bizkaiko atletismo txapelketan

Zapatuan Durangon eta domekan Getxon jokaturako Bizkaiko taldekako atletismo txapelketan, mutilek sailkapen orokorreko 20 probetatik zortzitan lortu dute garaipena; emakumeek, berriz, lau proba irabazi dituzte

ATLETISMOA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Asteburuan Durangon eta Getxon jokaturako Bizkaiko taldekako atletismo txapelketan, Durango Kirol Taldeko atletek euren nagusitasuna erakutsi dute.

Mutileen taldeak podiumeko mailarik gorenera igotzea lortu du, bigarren urtez jarraian. Sailkapen orokorreko 20 probetatik zortzi irabazi dituzte. Damián Aresek luzera-jauzian lortu du garaipena, Mikel Fernandezek eta Eneko Lanbarrik 400 metroko hesidun proban, Tito Garciak pertika-jauzian, Oier Ariznabarretak 3.000 metroko proban, Joseba Arranzek 200 metrokoan, Joseba Ogizak xabalina-jaurtiketan eta Javier Soberak mailu-jaurtiketan. Horrez gain, sei bigarren postu lortu dituzte.

Nesken taldeak, berriz, bigarren postua eskuratu du Bizkaiko txapelketan. "Garaipena lortzeko aukera izan dugun arren, proba batzuetan parte ez hartzeak bigarren postura eraman gaitu", adierazi dute Durango Kirol Taldekoek. Saioa

Telleriak 5.000 metroko martxa-proban lortu du garaipena, Priscila Beitiak luzera-jauzian, Ainara Mugartegik 400 metroko hesidun proban eta Garazi Sampedrok 3.000 metroko oztopodun proban.

Asteburuko emaitzekin, denboraldiko helburuak "behar bezala" bete dituztela esan dute taldekideek.

Bestalde, Durango Kirol Taldeak udalekuak antolatu ditu 6 urtetik 12 urtera arteko gaztetxoentzat,

ekainerako eta uztaileko. Bertan parte hartu gura dutenek maiatzaren 31ra arte izango dute aukera izena emateko 620 847 853 zenbakira deituta edo udalekuakDKT@gmail.com helbidera idatzita.



DKT taldeko kideak Landakon.

Adituaren txokoa

Asfontso Arroio Monasterio
ETBko
kirol kazetaria



Erbia

Animalia hau bizia da oso. Ugaztuna, ikusmen bikaina ez ezik, entzumen ona ere badu. Berrehun metrotik entzuteko gaitasuna dauka. Baina berezitasun handiena bere azkartasuna da. Lursail batean geldiegi egon daiteke, aurrean daukana zaindu eta zerbaitek ikara sortzen badio, ziztu bizian korrika ateratzeko. Horrela aritzen dira, abiadan, hainbat eta hainbat ziklista. Esprinterrak izaera berezikoak dira, orduko 70 kilometroko abiaduran nor baino nor gehiago aritzeko, adorea baino gehiago behar delako.

Gogoan daukat, zazpi urte nituela, telebistan lehen aldiz nire herriaren izena entzun nuela. Espainiako telebista publikoan izan zen, Vueltako etapa baten harira. Bartzelonan amaitu zen saioa "el ciclista de Abadiano"-k irabazi zuen. Hori entzutean, harrotasun puntua sentitu nuen, ez baitzen ohikoa norberaren herria kanpoko hedabide batean aipatzea. Zuri-beltzean dastatu nuen garaipenak zeharo liluratu ninduen. Herriko txirrindulariak, Trinchella italiarra eta Eulalio Garcia espainiarra azpiratu eta ondorioz, jaioterriaren izena goian jarri zuen. Berrogei urte beteko dira datorren maiatzaren 6an. Ziklismoarekiko harra orduan piztu zitzaidan eta oraindik ez zait itzali. Gorpuzkeraz handia, hanka luzeak bezain gihartsuak, ikustekoa zen haren indarra pedalei eragiterakoan. Besteak beste, Kas, Super-Ser eta Teka talde handietan aritua, berrogei garaipen eskuratu zituen ibilbide profesionalean. Estimatu eta maitatua pelotoian, gaur egun urrearen balioa izango zukeen "Lebarijjoko erbijjek"; hori da-eta Javier Elorriagaren goitizena.

Azkorbebeitiak hirugarren aldiz irabazi du Euskal Herriko txapela

KORRIKA • J.D.

Oñatin, Aloñako igoeran jokatu zen mendi lasterketen Euskal Herriko txapelketa joan zen

asteburuan, eta korrikalari abadiñarrak bere palmareseko Euskal Herriko hirugarren txapela jantzi zuen.



Oihana Azkorbebeitia Euskal Herriko txapela buruan, seme biekkin.

Martxa zikloturista egingo dute Elorrión, maiatzaren 1ean

Ibilbidea gorabeheratsua da eta parte-hartzaileek lau mendate igoko dituzte 92 kilometrotan zehar

BIZIKLETA • J.D.

Elorrio txirrindulari elkarteak Alberto Leanizbarrutia izeneko martxa zikloturistaren bigarren aldia antolatuko du datorren martitzenean, maiatzaren 1ean.

92 kilometroko ibilbidean lau mendate igoko dituzte parte-hartzaileek: Urkiola, San Kristobal, Untzilla eta Asentzio. Elgetara bidean, Barazar gainetik ere igaroko dira, baina Arrasatetik igoko dute

mendatea. Beraz, nahiko martxa gogorra da.

Elorrioko plazatik abiatuko dira txirrindulariak, 08:30ean. Parte hartu gura duenak egunean bertan egin dezake izen-ematea, 07:30ean plazan jarriko duten postuan. Interneten ere egin daiteke —www.kirolprobak.com webgunean— domeka gauerdia arte. Internet bidez bost euro merkeagoa izango da.

**DURANGALDEKO
ALBISTEAK
JASOTZEKO
BIDE BERRIAK**

Anboto Komunikabideak
 @anboto
 @anbotokomunikabideak

Whatsapp bidez
**Bidali 'ALTA' 688 635 041
zenbakira whatsapp
bidezko mezua bidalita**

Telegram bidez
**Bilatzailearen bidez
'ANBOTO' kontua
topatu eta
jarraitzen hasi**



Animatu gure Haurreskoletako partaide izaten HAURRESKOLETAN HAURREN ONGIZATEA HELBURU



TRAÑA-MATIENA

ABADIÑOKO HAURRESKOLA
Trañaetxoste, 10 ABADIÑO
Tel.: 946 202 166
tranamatiena.abadino@haurreskolak.eus



ZELAIETA

ABADIÑOKO HAURRESKOLA
San Trokaz enparantza, 7 ABADIÑO
Tel.: 946 200 672
zelaieta.abadino@haurreskolak.eus



ATXONDOKO HAURRESKOLA
Foruen plaza, 7 ATXONDO
Tel.: 946 859 002
atxondo.atxondo@haurreskolak.eus



EGUZKILORE

BERRIZKO HAURRESKOLA
Margarita Maturana, 4 BERRIZ
Tel.: 946 826 339
eguzkilore.berriz@haurreskolak.eus



JULENE AZPEITIA

DURANGOKO HAURRESKOLA
San Roke, 4 - behea DURANGO
Tel.: 946 203 516
julene.durango@haurreskolak.eus



ELORRIKO HAURRESKOLA
Goieta, 62 ELORRIO
Tel.: 946 584 907
elorrio.elorrio@haurreskolak.eus



ETORKIZUNA

IURRETAKO HAURRESKOLA
Olaburu, 5 IURRETA
Tel.: 946 200 937
iurreta.iurreta@haurreskolak.eus



INTXAURTI

MALLABIKO HAURRESKOLA
Intxaurti, 12 - behea MALLABIA
Tel.: 943 172 003
intxaurti.mallabia@haurreskolak.eus



MAÑARIKO HAURRESKOLA
Herriko Plaza, 2 MAÑARIA
Tel.: 946 218 308
manaria.manaria@haurreskolak.eus



ZORNOTZAKO HAURRESKOLA
Larrea auzoa, z/g AMOREBIETA-ETXANO
Tel.: 946 730 346
zornotza.amorebieta@haurreskolak.eus

**MATRIKULAZIO
DATAK**
Apirilaren 30etik,
maiatzaren 11ra

• www.haurreskolak.eus •



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Berriz. Pisua salgai Berrizen, Margarita Maturana kalean. Bi logela, sukaldea eta egongela batera, komuna eta balkoia dituen behe. Trastelekua eta garajea barne, igogailuarekin. 116.000€. Tel.: 652752394

Durango. Etxea salgai Durango, Juan Itziarko kalean. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa ditu. Kalefazioa. Dena berriztua. Deitu eta etorri. Tel.: 685-71 69 45
Tel.: 616-93 74 26

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Durangaldea. Etxe bila nabil Durango edo lurretan. Posible bada, hiru logelakoa. Tel.: 689-27 36 64

LOKALAK

LOKALAK ERRENTAN EMAN

Abadiño. Fruta-denda traspasatzen da Muntzarzen. Tel.: 657-77 19 28

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

LAN ESKARIAK ETXKO LANAK

Etxeak eta tabernak garbitzen ditut. Lan bila nabil etxeak edo tabernak garbitzen. Baita pertsona nagusiak edo umeak zaintzen ere. Tel.: 602-11 06 74

LAN ESKARIAK PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutila lan bila pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita atarietako garbiketa egiten ere. Barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Tel.: 610-06 70 42

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan bila nabil. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko, ordukako edo asteburuetakoa langilea. Tel.: 689-27 36 64

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Eskarmentudun neska lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Tel.: 691-06 21 19

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 688-44 22 90

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak

zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko langilea, gauze, orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 632-57 16 20

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Kanpoko zein barneko langilea gauze edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-63 01 44

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Gauze edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 602-11 03 94

Umeak zaintzen lan bila nabil. Kanpoko langilea lan bila dabil umeak zaintzen zein garbiketa lanetan. Lanaldi osoan lan egiteko prest. Tel.: 632-83 16 10

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea, gauze, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-76 21 47

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Gauze, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 722-21 38 29

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Gauze, goizez edo asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 631- 30 32 11

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Barneko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.:602-37 72 33

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Eskarmentu eta erreferentziadun pertsona lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan edo zerbitzari lanetan ere. Kanpoko langilea, orduka, lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Tel.: 631-28 71 29

Kanpoko langilea lan bila. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, garbiketa, zerbitzari lanetan... lan bila nabil. Eskarmentua daukat eta berehala lanean hasteko prest nago. Orduka, asteburuetan edo gauze lan egiteko prest. Tel.: 619-20 69 37

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan bila nabil. Orduka, asteburuetan edo gauze lan egiteko prest nago. Baita tabernetako garbiketa lanak egiteko ere.

Tel.: 632-34 77 31

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Goizez edo arratsaldean lan egiteko prest. Tel.: 744- 48 52 27

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Baserrietara joateko prest, gidabaimena daukat eta. Orduka lan egiteko prest. Tel.: 608-60 85 09

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan. Tel.: 602-13 98 07

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Orduka, goizez, arratsaldean zein gauze lan egiteko prest. Erreferentziak ditut. Tel.: 658-99 50 63

Nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago, baita etxeko lanetarako ere. Tel.: 688-43 03 80

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan. Tel.: 664-89 92 27

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan. Tel.: 663-60 59 28

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Esperientziadun pertsona lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 612-43 23 88

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea gauze lan egiteko prest. Tel.: 602-08 96 62

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 632-29 16 73

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Tel.: 632-88 97 96

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan. Baita lan bila nabil mendiko langile moduan ere.

Tel.: 602-01 61 86

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Barneko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 603-49 86 05

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Barneko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 695-07 41 17

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan. Tel.: 611-27 44 29

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Eskarmentudun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanak egiten ere. Barneko edo kanpoko langilea. Gauze, asteburuetan edo lanaldi osoan lan egiteko prest. Tel.: 632-57 16 20

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Barneko zein kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Orduka lan egiteko prest. Tel.: 632-10 68 75

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen lan bila nabil. Baita garbiketa lanak egiten ere. Kanpoko edo barneko langilea, orduka, asteburuetan eta gauze lan egiteko prest. Tel.: 631-70 05 73

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan lan bila nabil. Barneko edo ordukako langilea. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Tel.: 602-10 80 32

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita etxeetako edo tabernetako garbiketarako egiten edo zerbitzari edo sukaldari moduan ere. Barneko zein kanpoko langilea. Eskarmentu eta erreferentziak ditut. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 638-58 46 71

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan bila nabil. Baita garbiketa edo zerbitzari lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea, lanaldi osoan, erdian, orduka, asteburuetan edo gauze lan egiteko prest. Eskarmentua dut eta berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 680-22 60 39

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Eskarmentudun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita zerbitzari edo garbiketa lanetan ere.

Barneko zein kanpoko langilea lanaldi osoan, erdian, orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 631-06 20 76

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Eskarmentudun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita baserriak zaintzen edo eraikuntza lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea, gauze, asteburuetan, orduka, lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Tel.: 632-11 45 93

Nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Nagusiak edo umeak zaintzeko lan bila nabil, baita garbiketa ere. Barneko, orduka zein gauze lan egiteko prest. Tel.: 631-89 17 09

Nagusiak zaintzen ditut. Nagusiak zaintzen lan egin nahi dut, edota garbiketa. Barneko langile moduan. Tel.: 631-14 49 98

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan. Tel.: 632-78 57 54

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Tel.: 612-46 90 29

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita etxeetako edo tabernetako garbiketa lanak egiten, zein zerbitzari lanak egiten ere. Asteburuetan edo gauze lan egiteko prest. Tel.: 632-57 31 80

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanak egiten ere. Tel.: 632-41 25 57

LAN ESKAINTZAK

LAN ESKAINTZAK OSTALARITZA

Taberna baterako zerbitzaria behar da. Taberna baterako zerbitzari bat behar da. Gehienbat asteburuetan lan egiteko. Bidali curriculum-a argazkiarekin helbide honetara: sukatxo@hotmail.com

Ibilgailuak

AUTOAK

AUTOAK SALDU

Renault Trafic Combi 6 Laburra salgai. Renault Trafic Combi 6 Laburra. Normala 1,9 - 100CV. 6.800€. Camper bilakatutako furgoneta urdina salgai. Atzean bola eta bizikleta-euskarria ditu, lau bizikletentzat. Jabe bakarreko furgoneta da. Easy camp modeloko, abantza prezioan barne. Tel.: 605-72 32 37

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA



Atzo **Inge** Narbaiza Aldekoak 6 urte bete zituen. Zorionak potxola etxekuen partez. Ondo pasau egune.



Zorionak, **Aiala**, 6 urte jada. Muxu handi bat aitita, amama eta Elorriko familiaren partez.



Joan zan astien Ixorretako kazetari abilenak urteak bete zittuen! Zorionak **Geaxi** durangONeko lankidien partez! Jarraitu horren bizi!



Zorionak, **Aitor**, etxekoen partez! Zer antolatuko dozu zure urtebetetzietze ospatzeko?



Zorionak, **Izaro!** Handitzen doakigu etxeko sorgina, 6 urte jada. Mosu handi bat eta segi beti bezain alai.



Zorionak **Maddi** zure bederatzigarren urtebetetzian familia guztiaren partez. Muxu potolo asko!



Zorionak **Gontzal** Durangoko familiaren partez. Jarraitu holako jator eta aktore ona izaten! Ondo pasa eguna.



Zorionak **Irati** zure 10. urtebetetzian. Zure aita Lander, ama Ana, Endika, Luzia, Eder, aitteite Karlos eta amama Enkarnaren partez. Egun polita eta alai pasa.




Zorionak **Aratz** zure 7. urtebetetzian. Musu handi bat etxekoen partez.



Zorionak **Txiki** familiakoen eta lagunaren partez!



Ikerrek 7 urte bete ditu gaur. Zorionak Haizea, Aratz eta Unaien partez. Egun on bat izan!



Sartu eskua lasai frutaontzian

Garai batean baino fruta gutxiago jaten dugu. 2010. urteaz geroztik, Espainiako Estatuan 800 milioi kilo fruta gutxiago jaten da. Datu hori eman du Fruta, Barazki, Lore eta Landare Bizien Ekoizle Esportatzaileen Elkarteak biltzen dituen Federazioak. Egoera hori azaltzeko orduan, arrazoi ekonomikoak hartu behar dira kontuan eta baita arrazoi soziologikoak ere. Alde batetik, elikagai freskoen prezioa beti ez daiteke lehiatu opilek, edari azukretsuek eta beste elikagai ultra-prozesatu batzuek dutenarekin. Eta, horretaz gain, pertsona askori nagia sortzen zaie fruta bat zuritu behar dutenean. Errazagoa gertatzen zaie gaila pakete bat irekitzea kiwi bat zuritu eta zatitzea baino. Baina bada beste faktore bat ere fruta gutxiago jateko orduan: ez dela oso eskuragarria. Horrek ez du esan nahi fruta gutxi ekoizten dela eta merkatuan frutarik ez dagoela; esan nahi du fruta ez dagoela beste elikagai eta produktu batzuk bezain agerian eta eskura. Publizitatean, saltokietan eta kalean zailagoa da fruta aurkitzea opilak eta zizka-mizkak baino. Eta baita etxean ere. Etxe askotan galdu egin dute frutaontzia begi bistan edukitzeko ohitura osasungarria, fruta aleak esku-eskura jartzen duena.

Frutarik ez begi bistan

Gaur egun, era askotako frutaontziak daude: solairu bat baino gehiago dutenak, saskiak dituztenak, erretilu edo ontzi handien itxura koak... Alaiak eta kolore bizikoak izaten dira gehienak, baina batzuetan gehiago izaten dira apaingarriak fruta freskoa jartzeko lekuak baino. Ildo horretan, sukaldean hozkailu handiak izaten dira egun, elikagai guztiak luzaroago gordetzeko modukoak, baina horrek ere badu alde txar bat: fruta ez da begi bistan egoten. Eta horrek ondorio argia izaten du: ikusten ez ditugunez, ahaztu egiten zaigu badirenik ere, bai haurrei eta bai guri ere.

**GOZATU
GOZOTEGI
OKINDEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook:
Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.

Eskela

Martin Barreña Elizegi

Izan zinelako gara.
Maite zaitugu "aittite" Martin

Unai eta Andrea, Gorka, Martin eta Sara, Itsaso eta Jon, Imanol, Xabier, Paul, Jone, Leire, Lur, Nahia.

Botikak

BARIKUA, 27 - 09:00-09:00
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO LUIS Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 28 - 09:00-09:00
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
09:00-13:30
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO
UNAMUNZAGA Murratortze 2C - DURANGO
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
BAZAN DIAZ Urribarri 5 - DURANGO
JAIO-OLABARRIETA Errekakale 6. - ELORRIO
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-14:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO LUIS Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
DOMEKA, 29 - 09:00-09:00
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO LUIS Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
ASTELEHENA, 30 - 09:00-09:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO LUIS Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
MARTITZENA, 1 - 09:00-09:00

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO LUIS Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
EGUAZTENA, 2 - 09:00-09:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO LUIS Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
EGUENA, 3 - 09:00-09:00
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO LUIS Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

“Txarrak gara, baina kontzertuak eskatzen dizkigute, dibertsioa sortzen dugun seinale”

Baske Street Boys taldeagaz Matienako jaietan joko du Ekaitz Herrerak. Kazetari abadiñarra ETB1eko 'Herri Txiki Infernu Handi' programako zuzendariordea da

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Baske Street Boysek Matienako jaietan joko du. Urduri zaudete?

Bai, San Prudentzioetan jotzen dugun lehenengo aldia izango da. **Kontzertu gutxi ematen dituzue. Zein da taldearen planteamendua?** Taldearen planteamendua da... ez dugula planteamendurik. Musika talde bat baino gehiago, lagun talde bat gara. Ondo pasatzeko jotzen dugu, eta urtean kontzertu bat edo bi emanda nahikoa dugu. Ez dugu pretentsio musikalik. Onartzen dugu oso txarrak gara, baina jendeak kontzertuak eskatzen dizkigu, dibertsio apur bat sortzen dugun seinale. Orain hamar urte Motxoianean 'ganberrada' moduan hasi zena, ohitura bihurtu da.

Kontatzeko moduko 'ganberrada' bat izan zen?

Abadiñoko Gaztetxean talde batek jo zuen, eta gure artean oso txarrak zirela berba egiten hasi ginen. 'Hauek jotzen badute, guk zergatik ez?', pentsatu genuen. Beste talde batzuen bertsio batzuk jotzen ditugu, baina gure abesti propioen bat ere badugu, *Trañakaña* esate baterako.

Kontzertu txikietatik Matienako txosnagunerako jauzia emango duzue.

Etxean eta etxekeontzako kontzertua izango da. Matienako plaza handi geldituko zaigu ziu-rrerik, leku txikietan eta ilunpean jotzera ohituta gaudelako. Bat-batean soinu ekipo handi batez eta argiztapenagaz jotzea ezberdina da. Giro bildua sortu da Matienako plazan txosnen inguruan, eta gu jotzeko gogotsu gaude. Gainera, Eskupitajo eta Muted herriko taldeekin batera joko dugu.

Matienako jaietatik, zer da gehien gustatzen zaizuna?

Egunez sortzen den giroa oso gogoko dut, paella lehiaketakoa eta mozerro egunekoak, esaterako. Gaua ere gogoko dut. Txosnak nire gune naturala diren arren, tabernak ere gustuko ditut. Txoparen unea ere polita da.

Ezpatadantzari jardungo duzu?

Iluntzegaz urtero irteten gara jaietan. Geroz eta irteera gutxiago egiten ditugun arren, San Prudentzioetan ez dugu hutsik egiten.

'Herri Txiki Infernu Handi' programan diharduzu. Domekaro ikusten dugun freskotasunaren atzean, zelako lana dago?

Ikusten dena baino lan handiagoa dago programa bakoitzaren atzean. Ez naiz arma denak erakusten hasiko. Baina, erredakzio taldearen atzetik, gidoitik kanpo, Zuhaitzek eta Pagadik abilitate handia dute bazterrak nahasteko eta inprobisatzeko. Ezaugarri bi horiek uztartzea da helburua.

Herri bakoitzeko protagonistak aurkitzeko, informazio sarea duzue?

Hasteko, herri bakoitzeko udalagaz hartu-emanen jartzen gara. Gainera, frontoian edo beste eraikinen batean grabatu behar izaten dugunez, baimena eskatu beharra dago. Dei hori baliatzen dugu herriko jende jator eta dibertigarriaren kontaktuak eskatzeko. Beste kasu batzuetan, ezagunei ere galdetzen diegu.

Erritmo bizian grabatzen duzue programa. Egun bakarrean.

Oso gozo ikusten den programa bat da, baina bere lanaketaren erritmoa oso bizia da.



Apirilean lurretara grabatzera etorri zinetenean eguraldi eskasa egin arren, grabazioa ez zenuten bertan behera utzi.

Ia 26 programa grabatuko ditugu 2017-2018 denboraldian, eta egun eguzkitsuak lauzpabost izango ziren. Aldiz, dozena batetik gora ura, behelainoa, lanbroa...denetarik izan dugu.

Durungaldean, zenbat herri bisitatu dituzue?

Atxondo, Zaldibar, Mallabia, Mañaria, Otxandio eta Iurreta bisitatu ditugu.

Daramazuen martxan, geroago eta herri txiki gutxiago geldituko zaizkizue grabatzeko.

Etorkizunean izan dezakegun arazoetako bat da. Gure formatuan, geroago eta herri txiki gutxiago gelditzen zaizkigu. Lau denboralditan 90 programara helduko gara.

Hamaika pasarte izango dituzue kontatzeko.

Araitz herrian, esate baterako, gasolindegia bateko langileagaz grabatzeko hitzordua jarri genuen. Genekien bakarra zen kazetaria zela eta asko irakurtzen zuela. Halako batean, gizon bat kotxean etorri zen eta gasolindegira heldu baino 20 metro lehenago gasoilik eta bateriarik barik gelditu zen. Laguntzera gindoazela, grabatzen jarraitu genuen. Beraz, sekula ez dakizu grabazioa nondik nora joango den.

Jende bitxia aurkitzen trebeak zaretela ezin da ukatu.

Grabatu dugu Iurretan, Izaban, Oionen... Euskal Herri osoan. Eta egiten dudan irakurketa da jendea bihotz onekoa dela. Zelako jende jatorra dagoen Euskal Herrian, bere etxeko atea zabalitzen dizkizuna bere bizimodua eta ohiturak kontatzeko.

Ekaitz Herrera Azkarraga
Baske Street Boys taldea
Abadiño I 1986

Lauhortza

Ainhoa Olaso Sopelana
Ikaslea



Galderak egunkari baten aurrean

Zazpi lurraldedun herri hura, norik zaindu zuen? Egunkarietan ugazaben izenik baizik ez da ageri. Gizon zuri horiek garbitu ote dituzte harri etxetzar garestiok?

Eta hainbestetan borrokatuak izan diren eskubideak, norik aldarrikatzen ditu orain hainbestetan?

Ardo kopa distiratsu hori bete dizun kontratu gabeko taberna, zein etxetan bizi ote da?

Greba feminista hura bukatu zen iluntzean: nora jo zuten emakumeek*?

Michelin izar bikain horiek, garaile zorion beterik. Norik lixibatu zituen sukalde hartako amantalak?

Nortzuk esplotatu zituen patronalak? Norik galdu zuen besoa Abadiñon?

Alegiazko herrian beste behin, alokairuaren prezioak irentsi gintuenean, manifestariak ito zorian oihuka ari zitzaizkien instituzioei neurri zuzen eske. Hain ospetsua den Durangoko Udalak, jauregi preziodun pisuak baino ez ote ditu eraiki behar? Eta konstruktore hura, tren geltoki zaharra bota eta lurra bereganatuta, berak bakarrik egin ote zuen?

Eusko Jaurlaritzak Euskadin auzolana aldarrikatu zuen gero:

Joan ote dira inoiz, prentsari begirako argazkirik ez dagoen auzolan egunen batera?

Levantek Athletic menderatu. Ez ote zuten beraiekin sukaldari bat bederen? Espainiako erregeari eta ereserkiari txistu egin diete milaka katalanek. Ez ote zuen beste inork txistu egin?

Abrasivos Texajax Zornotzako enpresako langileak, haurdun egoteagatik lana galdu. Norik bestek zuen galdu?

Galdera bat lerro bakoitzean. Zenbat langile, hainbat galdera.

anboto
komunikabideak

ESKURA EZAZU COSTA DAURADAN

EROSKI bidaiak EMANDAKO
ASTE BETEKO EGONALDIA!

Parte hartzeko sakatu Facebook-en:



Atsegin dut iragarkia



Etiketatu laguna



Jarraitu ANBOTO KOMUNIKABIDEAK



Partekatu iragarkia